

in-komunikazioa:

fermin muguruza

bertso eskola

20 urte

gai toxikoak

arabako
gaztagileak



V
GEU
GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA

literatura. lourdes oñederra. artea. francisco ruiz de infante.
historia. bidaiak. sukaldaritza. denbora-pasak...

geu aldizkaria-geu elkarteak.

10 urte. zorionak guztioi

ZURE ORDENAGAILUAK ZINTZILIK UZTEN BAZAITU...

DEITU KZlaguntzara
Tel.: 902 544 545
www.kzlaguntza.net

KZlaguntzak, informatika orientazioko doako zerbitzu berriak, ordenagailuen munduarekin zerikusirik duen edozein zalantza argitzen lagunduko dizu.

ARRETA ORDUTEGIA KZlaguntza

Igandetik ostegunera:
10:00etatik 22:00etara

Ostiral eta larunbatetan:
10:00etatik 24:00etara

aurrera doan
herria



euskadi
informazio gizartearen en la sociedad de la información



EGUNEAN-EGUNEAN BIZITZEN IKASTEN DUGU ELKARREKIN

Koldo Mitxelenan ikasten den lehen gauza da euskara Euskal Herriko ezaugarriarik behinena dela. Horregatik, mundu zabalean hainbat kultura galtzeko arriskuan dauden garaiotan buru-belarri jarduten gara gure hizkuntza berreskuratzeko asmoz. Euskaltasunetik begiratzen diogu munduari

KM

KOLDO MITXELENA
INSTITUTUA

DBH / ESO
Behenafarroa z/g Tlf. 945 26 22 33
www.koldomitxelena.net



40. orr.

GEU ALDIZKARIA-
GEU ELKARTEA. 10.
URTEURRENA



14-15. orr.

BERTSO ESKOLAREN 20.
Urteurrena
(Ahoz aho atala-8-15)



16-21. orr.

gure inguruko
GAI TOXIKOAK
(Gaika atala-16-23)



22-23. orr.

Arabako
GAZTAGILEAK
(Gaika atala)

10 urtek aldizkari berria merezi dutelako, hona hemen diseinu, egitura, itxura, eduki berria. Murgil zaitezte aldizkari berriaren baitan eta atal & kolaboratzaile berriak (ongi etorriak!) zein berreskuratu atalak ezagut itzazue. Guztien gustuko izatea da gure nahia, aldizkari hobea eskaintzea gure asmoa.

Honekin batera, hemendik 10. Urteurreneko ekitaldietan parte hartzeko gonbitea luzatzen dizuegu. Laster elkar ikusiko dugulakoan, gozatu aldizkari berriaz & 10. Urteurreneko egitarauaz, eta zorionak guztiei!

GAINERA...

• Han-hemenka (4-7. orr):

iritzia; kaleak dio; araba bixotzian; entzun, irakurri, ikusi...

• Euskaltasunean lagun (13. orr-Ahoz aho atala)

• KulturAisialdiari so (24-38. orr):

AGENDA (24); ARTISTA BERRIEN TXOKOA - argazki elkarte (25); IDAZLEEN GURPILA - **lourdes oñederra**: neska haren iribarrea (26-27); HISTORIA ZERTZELADAK - **kike fdz. de pinedo**: 'otsoko de binasperi eta fortun zuria arabako errioxan bizi zirenekoa' (28-29); ARTE TXOKOA - **francisco ruiz de infante** artista (30-31); naturaren isladak; bidaiak (33); sukaldaritza (35); denbora-pasa; komikia; geu-ren eskaintza, literatura, musika

Azala ...



Fermin Muguruza mundu mailako euskal musikariari eskaintzen diogu gure 120. aleko azala, Iker Trebiño argazkilarik egindako argazkiaren bitartez. 8-11 orrialdeetan In-komunikazioaz mintzo zaigu, besteak beste.



GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992)
Geu aldizkari taldeak egina, bideratua eta kudeatua
Erredakzioa: Pedro Asua, 2-3.a.
Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es

Zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate
Aldizkari batzordea: josune velez de mendizabal, edorta sanz, edurne begiristain, estitxu breñas eta david alvez
Kazetariak: leire lpz. de aberasturi, edurne begiristain, josune velez de mendizabal
Argazkiak: edorta sanz/ kolaboratzaileak: iker trebiño, galder izagirre eta ivan santamaria.

Bestelako irudiak-bilaketa: e.b.

Testuen orrazketa-zuzenketa:

osaketak: e.b.

Maketa: patirke sanz eta david alvez

logoa: io grafix

komikia: iñigo sarasola

Kolaboratzaileak: iñaki zorrakin, ernesto murillo 'simonides', txema ramirez de la piscina, gabi basañez, kike fdz.

de pinedo, lourdes oñederra, argazki elkarte,

gamarra ostalaritza eskola, luma aldizkaria

edurne begiristain

Publizitatea eta Banaketa:

Sustapen-harpidetza saila: edurne begiristain, e.b.z.,


Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)

Ale kopurua: 2.500

LG: VI-582/92 - ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago. Geu aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Han-hemenka atalean, iritzia nagusi, hileroko kolaboratzaile berriei esker. Ez galdu aiez ale hauen iritzia ezagutzeko aukera. Abenduko alean: Txema Ramirez de la Piscina, kazetaritzako irakaslea EHUn. Aurrerago Itziar Alduntzin Euskadi Gaztea-ko mintzalaria eta Sorginen Laratzako kide ohia; Edu Zelaia idazle gasteiztarra; Aitziber Pz. de Karkamo kazetari arabarra; Ruben Sanchez bertsolari gasteiztar entzutetsua; Klaudio Landa, besteak beste, izango ditugu gurekin.



Txema Ramirez de la Piscina

Kazetaritzako irakaslea EHUn

Udagoieneko haizea

Gasteiz: Akaso egunen batean barrenago sentituko dudan zerbait. Horrela hitz egin du -aldizkari honetan bertan- Mikel Urdangarinek, aspaldian gure artean dabilen kantari zornotzarra. Ez dizuet gezurrik esango: irakurri bezain laster bekokia zimurtu dut. Hara! Gasteizen gaizki txertatu den beste bizkaitar erbesteratu bat! pentsatu dut.

Bistan da Mikelen hitzoi darien etsipena eta ezintasuna. Hiriko bazterrak maite nahi bai, baina... ezin ote? Bere iritzia da, guztiz errespetagarria eta transferiezi-na. Ni ez naiz inor inoren sentimenduak ezbaian jartzeko, eta are gutxiago epaitzeko. Nago Mikelek adierazi duen hori, gainera, gure artean aspalditxo dauden hainbat eta hainbat bizkaitar eta giputzaren sentsazio bera dela. Horiei guztiei doakie, beraz, ondorengo gogoe-ta pipertua.

Gasteiz hiriaz denetik entzun dugu. 50eko

hamarkadan honela defini-tu zuten kronikariak: *hiri ttipi eta barrenkoa, apaiz, moja eta militarrez josia*. 60 eta 70eko hamarkadetan, berriz, beste modu honetara: *gorabidean datorren hiria, proletario gazteez hornitua*. Eta azken urteotan, aldiz, honela: *Euskal Autonomia Erki-degoko hiriburu moderno, berdegune eta zerbitzu ugariz apainduta*. Eta horiek guztiak egia izanagatik ere, ez dira -inolaz ere- Gasteiz hiriararen erretratu perfek-tua. Gurea, beste guztiak bezala, hainbat *mikro-klimaz* osaturik dagoen jende-multzo zabal eta konplexua da. Este-reotipoetan baldarrena, azken urteotan, zenbait bizkaitar eta giputza kon-kistatzailek darabilten ebazpen hau da: *Gasteiz, galdutzat eman beharre-ko hiria*. Benetan mingarria.

Gasteizen denetik aurkituko duzue: kopeta tentedun *vitriano* han-diusteko dezente, bai; euskara arrotzat hartzen duen herritar nahi-

kotxo, konforme; karran-ka egiten duten giro eta zonaldeak, ados. Baina *Bestelako Gasteiz* ere existitzen da: etorkinekin bat eginik bizi den jen-dea, euskararen militan-tzia egunero aintzat har-tzen duen herritar multzo zabal eta "pentsaera bakarra" ezinbestekotzat hartu ordez, pentsamen-du librearen gainean eraiki den eremu ireki eta alternatiboa. Hori guztia da Gasteiz: poliedroaren hostoak.

Udagoienean haizea bihurria da oso: batzue-tan epel eta gozoa; bes-teetan, takar eta bortitza, negua atarian dugulako seinale. Horrelakoetan, auto-babeserako meka-nismoak abian jartzen ditut. Gasteiz, orain gorrotagarri, orain maita-garri. Udagoieneneko haizea. Ni ere ez naiz Gasteizen jaioa, baina hemengoa naiz eta *barren-barrenetik* senti-tzen dut.

(Barkatu Mikel zure hitzak aitzakiatzat hartu izana).



euskal herrian euskaraz

Konplexuak Astindu!

Euskaldunok oro har euskara bide onean doala uste dugu. Gutxienez hori da gehienetan entzuten dena. Baina bestelakoa da egoera.

Datu baikorrenak kontutan hartuta azkeneko 25 urtetan euskararen ezagutzak % 4 soilik egin du gora. Datu ezkorrenak aditu ezkerok ez da aldaketarik egon.

Beraz, gaurko koordenada berberetan euskararen aldeko lana mantendu ezkerok 450 urte beharko ditugu, kasurik onenean, Euskal Herriko populazioa euskaradun bihurtzeko. Kontutan hartuta erdaltzaleak beraie botere politikoa euskararen kontra inolako konplexurik gabe erabiltzen dabiltzala, luzeago izango dela aurrez ikus daiteke.

Pentsatzekoa da berreskurapen prozesuaren arazo gero eta handiagoak agertzen hasiko direla, eta hala izaten hasi da, Helduen Euskalduntzearen gainbeheraren larriagotzea, Nafarroan D ereduaren matrikulan 2 puntuko galera azken urtean, EAEn A ereduaren 4 puntuko igoera azken urteko aurrematrikulazioa,...

1868.enean Gipuzkoarren % 100a, Bizkaitarren % 93 eta Euskal Herriko biztanleen % 52 ginenak % 27 tara bakartu gaituzte. Bizirik den europar hizkuntza zaharrenaren gordeleak garenok duela 300 urte gehiengo ginen. Botere politikotik zein eskolatik galera ziz, eta erabilpen publikoa galera ziz edota neurtuz gutxiengo bihurtu gaituzte.

Baina hori inork gutxi aipatzen du gaur. Etnozidio hitza ez da politikoki zuzena. Nondik gatozen eta zer ginen ahaztu behar. Iraganik gabeko gerorik bai?

Unesco-k euskara galtzeko arriskuan dagoela esan berri du; Iparraldean gainera galtzeko arrisku bizian dagoela dio.

Euskal Herriko instituzioetako funtzionarioek ez dute derrigorrezkoa euskararen eza gutza eta hortaz, erdaldunak dira % 90. Ezinezkoa gertatzen da gero eskubideak ditugun lurraldeetan betetzea, noski. Eskolak ez

du bermatzen, hiru administrazioetatik batean ere ez, belaunaldi berrien euskalduntzea. Euskal Herriko derrigorrezko hezkuntzan ume-gazteen erdia ez da euskalduntzen, hots, zazpi herrialdeetako 204.241 gazte; EAEko 144.699 joan zen urtean.

SEI elkarteak egindako erabilpenaren gaineko neurketan, berriz, mirari bat gertatzen ari dela ematen du, 10 pertsonatik 3 euskaldun izanik, 2 euskaraz ari dira. Borondaterik falta ez zaigun seinale.

Egoerari buelta emateko egiak zabaltzen hasi behar. Jakin badakigu ezagutzen saltorik eman ezean gutxiengo izaten jarraituko dugula eta horrek euskara ez normaltzea esan nahi duela, euskaldunok gure lurraldean bigarren mailako hiritarrak izaten segitzea. Horri amaiera ematen hasteko euskal generazio berri guztien euskalduntze bermatuko duen eskola irabazi beharra dago. Horrek A, B, G, Ikas Biren ereduak desagertzea dakar. Ereduen eskola gaintitu.

Horrekin batera funtzionario postu berri guztietan euskalduna derrigorrezko izatea lehentasunezko neurria du. Euskaldunok administrazio guztietan eta maila guztietan ditugu zapaldurik gure hizkuntza eskubideak. Eta hauek betetzeko ez dago beste biderik.

Baina bi neurri hauek, aldaketa politikoa erabatekoa, lege berrien sortzea eta konstituzioen aldatzea ekarriko luke, euskara ez dadin jarraitu ezereza edo eskubide izaten erdara derrigorrezko den bitartean.

Horra heltzeko euskaldunok konplexuak astintzea behar-beharrezkoa da, normalizazioa helburua hartzeak Euskal Herriko biztanlego OSOA euskalduntzea baitakar. Horra lanaren tamaina. Orain arte egindakoak, eus-teak alegia, garrantzitsua izan arren, ez du normalizazioa bermatzen. Astintzen has gaiten!

Gabi Basañez. EHEko kidea

Jadanik ohituak gaude gazteitarrok gure hiriko kale guztiak obraz beteta ikustera. Normalean uda garaian hasten zaizkigu kaleak hankaz gora jartzen. Eta urte osorako plana luzatzen da. Baina bada urteak direla hasi berrikuntza obra bat eta dirudienez, urte askotan zehar iraun beharko duena: Santa Maria Katedralako obra eta berriztapena. Jakina da berau bisitatzeko aukera paregabea dugula hiritar eta kanpotarrek; gure hiri zahararen ezagutzan murgiltzeko parada. Gai hau ahotan harturik, Gasteizko alde zaharrean sartu gara hiritarrei galdezka.

JESUS VARONA. Langilea

1. Hau bezalako aukera gehiago izan beharko genituzke, gure hirian egiten diren obren inguruko berri izateko.
2. Gasteizko alde zaharra dagoen bezala mantentzea gustatuko litzaidake. Soilik behar-beharrezkoak diren berriztapen obrak oniritzen ditut.



Izena

Sergio Fernandez Atauri 'Regu'k azaroaren 3an utzi zuen kartzela (1998ko azaroaren 10ean atxilotu zuten, "desorden publikoak" leporatuz). Espetxean hies-az kutsatu (1999ko abenduaren 24an futboleko jolastan, beste preso baten kontra talka egin eta gero) eta Kode Penalaren 92. artikularen aplikatzea ukaturik, ezarritako 4 urteko kartzela-zigorra osorik bete behar izan du; gaixotasun hori ahalik eta egoera hobereenetan tratatu behar da, alegia, askatasunean, kontuan harturik espetxe infekzio-gune bat dela. Honakoa dio artikulua horrek hitzez hitz: "...behin-behineko askatasuna ezartzeko irizpidea, medikuen txostenak zehaztuta, oso larri dauden gaixo eta sendaezinezko gaixotasunak dituztenei ezarriko zaie".



1. Zer iruditzen zaizu hirugarren aldiz katedral zaharra bisitatzeko aukera hau?

2. Katedralaren berriztapenaren ildotik, Aiztogile kalean etxebizitza ugari bota nahi dituzte, kale txiki bat irekiaraziz, monumentuaren lau hormak ikusi ahal izateko. Eta egun etxebizitza horiek dauden lekuan bulego batzuk eraiki nahi dira. Zer deritzozu?

LAURA ONA. Ikaslea

1. Ondo iruditzen zait, noski. Bisita hauek oso bitxiak dira.
2. Ez nago batere konforme. Familia ugari kale gorrian utziko dituzte etxebizitza bat erosteko sosik gabe, eta dena horrela politagoa geldituko delakoan.



GERMAN ARRIETA. Langilea

1. Beti ikas dezakegu zer-bait gehiago gure hiria gainean. Gainera, antolamendua primerakoa da.
2. Entzuna dut beste pisu batzuk emango dizkietela eurek dutenaren truke. Beraz, berriztapena denon onerako izanik, ondo deritzot.



DELIA. Jubilatua



1. Aurreneko bisita egin nuenean asko harritu ninduen. Hau hirugarrena izanik, berriztapen gutxi ikusi ditut.
2. Ondo dago jendeak ikuspegi guztiak ikus ditzakeelako, baina hainbeste gastu egitea merezi ote duen galdetzen dut. Alde batetik, berriztatu eta bestetik, dirua alperrik galdu.

zkia

200.000

Euskararen sustapenerako den 200.000 euroko inbertsioa du Udalak geldirik oraindik.

Entzun/Irakurri /Ikusi



Ikusi

Bi urteren ostean, BETAGARRIren disko berria jada kalean (6. lana): Arnasa hartu (Metak disketxea); erritmo dantzagarriak eta hausnarketarako hitzak entzungai. www.betagarri.com.



Irakurri

Che Guevara iraultzailearen arbasoak Araban kokatzen ditu Isidoro Calzada historialari bizkaitarrak egin biografiak.

(Arabako egunkaria, azaroak 10)

Entzun

Koldo Mitxelenaren obra guztia, argitaratutakoa zein argitaragabea, plazaratuko da aurtengo abendutik aurrera; 12 liburuki izango dira: lehen abenduan kalean, eta gainontzekoak 2003-2004 urte bitartean.

(Radio Euskadi, azaroak 18)

Araba bixotzian



SIMONIDES

Fermin Muguruza
abeslari iruindarrak
isilpean pasa du azken
urtea. Denbora ongi
aprobetxatzen jakin
du eta lan berri
batekin bueltatu da:
In-Komunikazioa.
Ferminen diskoaren
barrualdeak azaldu
dizkio GEU
aldizkariari.

Zein berrikuntza dakar In-Komunikazioa diskoak?

Nik gustuko dut denborarekin soinu berriak esperimentatzea eta horiek, nik daukadan unibertso musikal berezi horretara ekartzea. Disko honetarako pentsatuta neukan batez ere emakumeen ahotsekin lan egitea eta horrekin batera, soul kutsua ematea, hots, kantuak geldotzea, eta bi puntatako instrumentuak erabiltzea: bata, zeharo tradizionala dena, trikitia; eta bestea, modernoagoa, platoak. Halaber, haize sekzio bat sartu nahi nuen. Horrek soportea handia ematen die atzeko melodiei, hitzak eroso ibiltzen direlako diskurtso musikalaren gainean. Finean, nire asmoa zen kantuak hain bizkorak ez egitea, azken diskoetako erritmoa lasaitzea; horrekin sakontasun handia lortzen baita eta fusioarekin diskurtso musikal aberats bat sortzen delako.

Zer dela eta In-Komunikazioa izenburua?

Bizitzen ari garen komunikazio edo inkomunikazio aro honen inguruko hausnarketa bat da. Beraz, badira zenbait konstante etengabe ateratzen direnak diskoan zehar, eta etengabeko hausnarketa dago gizakion harremanen inguruan, bikotetik hasita kolektibora arte. Tituluarekin halako bidaia bat egiten da komunikazioaren barneko aldera. Mikel Laboaren Komunikazioa-Inkomunikazioa kantari ere keinu bat da.

Musikak komunikatzeko balio du?

Dudarik gabe. Komunikatzeko tresna handiena da. Hizkuntza ezezik, ez dut ezagutzen beste tresnarik munduko edozein puntan ongi sentiarazteko gai dena. Musikak berak badauka komunikatzeko gaitasun handia, eta ni gainera horrekin apasionatu egiten naiz.

Dub Manifest taldearekin bezala, disko berrian esparru eta leku desberdinetako musikariekin lan egin duzu. Lan metodo hori nahiago? Errazagoa zaizu horrela lan egitea?

Askoz zailagoa da. Baina musika munduan urte mordo bat daramatzazuean, nik dagoeneko 20 urte, denetarik frogatzen duzu. Bakarrik hasi nintzenean, mundu osoan zehar egindako bidaia bat izan zen, non zenbait hiritan bidaikideak topatu nituen eta haiekin batera zenbait kantu grabatu nituen. Baina oraingoan hori aldatu nahi nuen eta beste diskurtso

musikal bat erabili. Eta horretarako beste musikakide batzuk behar nituen. Talde batekin lan egiten dudanean, koordinatzeko askoz zailagoa izaten da, baina emaitza aberatsagoa da eta behintzat ni oso gustura nabil estilo honekin.

Kanten hitzak zeuk idazten dituzu, baina taldekideen iritzia ere kontuan hartzen duzu?

Hitzak konposatzea nire lana da bakarrik, ez baitaukat talderik; horregatik


FERMIN in-komunikazioa MUGURUZA

edurne begiristain

argazkiak:

galder izagirre eta iker trebiño (bideoklipekoak)

**“Talde batekin lan egitea
zaila da, baina emaitza
aberratsagoa da”**



"Gasteizko
Gaztetxearekin
harreman handia
daukat. Niretzat
izugarritzko errefe-
rentzia izan da
betidanik"

FERMIN MUGURUZA
In-komunikazioa


tik dira Fermin Muguruzaren diskoak. Nik gonbidatzen ditut musikariak nirekin lan egitera eta bakoitzak bere nor-
tasuna aportatzen du. Baina azken hitza nirea da. Hau
pelikula bat da, eta film honen zuzendaria eta gidoilaria
neu naiz.

**Hamar kanta daude disko honetan. Asko geratu al dira kan-
poan?**

Bi kanta gelditu dira diskotik at. Normalean ez ditut
kantak baztertzen, baina disko honetan bai. Ikusita zer
motatako uniformetasun musikala lortzen ari nintzen
kantu guztiekin, beste biak kanpo utzi nituen askoz elek-
tronikoagoak zirelako.

Noiz hasten zara disko bakoitzaren lan-taldea prestatzen?

Kantak konposatzeari ekiten diodanean hasten naiz
taldean pentsatzen. Prozesu bat izaten da, kantak egiten
hasten naiz eta gero ikusten dut zein musikari izan daite-
keen paper hori hoberen bete dezakeena. Nik gidoia ida-
tzita daukat eta pertsonaje bakoitzak zer egin behar duen
badakit, baina gero erabaki behar dut zein aktorek bete
dezaketen paper hori.



Eta 'aktore' guztiek baiezkoa ematen al dizute?

Normalean guztiek baiezkoa ematen didate. Jende guztia kriston ilusioarekin etortzen da eta diskoan euren nortasuna geldidadin saiatzen dira, bai diskoa bere osotasunean defendatzen, bai norberak instrumentu bakoitza



interpretatzerakoan duen nortasuna azaltzen.

Taldeakide guztiekin daukazu komunikazio ona?

Bai, dudarik gabe. Izugarrizko harreman ona izaten jarraitzen dut hasieratik nirekin parte hartu duten taldeakide guztiekin. Normalean musikarien artean sortzen den harremana oso berezia izaten da, bira batean komunitate ibiltari bat sorzen da eta sekulako konfidantza sortzen da guztion artean.

Letretan barrura eta kanpora begiratzen diozu. Normalean barrura begiratzea gehiago kostatzen zaizu?

Ez, ez da zailagoa. Momentu honetan sortzaile edo musikari geldiezin moduan ditudan beharrak modu honetan kontatu nahi izan ditut. Niretzat hori kaleratzea liberazio bat izan da. Behar bat sentitzen duzu zenbait gauza kontatzeko, eta hori atera egiten zaizu eta horrela ateratzen dira kantuak. Baina, barrura zein kanpora begiratzea, biak dira errazak bezain zailak.

Gasteizko Gaztetxeari kanta bat eskaini diozu. Zer dela eta?

Gasteizko Gaztetxearekin harreman handia daukat. Niretzat izugarrizko erreferentzia izan da betidanik, eraman duten lanagatik, sentsibiltate desberdinetako jendea biltzeko izan duten gaitasunarengatik. Kontatu zidatenean bota behar zutela, kantu bat eskatu zidaten eta urgentziatzko bat egin nuen etxean. Orain beste buelta bat eman diot kantuari eta diskoan sartu dut.



ZIZTUAN

- **Amets bat?** Euskal Herri independente bat ikustea, baina gertuago ikusten dudana da autodeterminazio eskubidea onartzea eta bake prozesu bat martxan jartzea.
- **Amesgaiztorik?** Zoritxarrez asko dauzkat. Gehienak poliziek egindako barrabaskeriekin.
- **Txikitan zer izan nahi zenuen?** Dentista.
- **Gustuko musikaririk?** The Clash, Public Enemy, Rage Against the Machine, Lauren Hill, Ani di Franco, Luciano...
- **Libururik?** Joseba Sarrionandiaren *Lagun Izotua*, eta Paddy Rekalderen *Rebel Mayo Colorao*.
- **Telebista saiorik?** Orain ez dut ikusten. Lehen Caiga quien Caiga gustatzen zitzaidan.
- **Irratirik?** Radio 3 eta Euskadi Irratia.
- **Egunkaririk?** Egutero Euskaldunon Egunkaria eta Gara irakurtzen ditut.
- **Bizitzeko herri bat?** Irun aukeratu nuen; bartzuetan halako amodio-gorrotzko sentimena daukat nire herriarekiko.
- **Eta oporretarako?** Edozein tokitan izugarri disfrutatzen dut. Aurten Montrealean egon naiz eta izugarri gustatu zait.

IN-KOMUNIKAZIOA: ESTILO NAHASKETA

Fermin Muguruzak bizitzari buruz jarduten du In-Komunikazioa diskoan. Negu Gorriak ondoko bere hirugarren lana, beharrari buruzko kontaketa hunkigarria da. Hamar kantuz osatutako lan hau Metak disketxearekin kaleratu du. Begoña Bang Matu eta Eva Reinaren ahotsak zeruko opariak dira (baita Arianna Puella-ren hip-hop errima ere), Joseba Tapiaren trikitixarekin, DZren scratch-arekin eta Eric Herrera, Raynald Colom eta Gorka Benitezen haizeekin batera, reggae-an eta drum'n'bass-ean ulertzen direnak. Hori dugu Ferminen asetzen jakin izan duen behar bat, rock-a rock'n'roll-era erretorikan eroso, rap-a soul-era eta reggae-a drum'n'bass-era, dub-a ukituz, guztiak dantzan ipintzea.

'BIZI GARA' KONTZERTUA

Hasiera batean, Ferminen bere azken lanaren zuzeneko aurkezpenak maiatzean hasi nahi zituen. Alabaina, egungo egoera politikoak bultzatuta Bizi Gara izenburupean adierazpen eskubidea aldarrikatzeko bi kontzertu eskaintzeko konpromisoa hartu zuen. Hartara, eta diskoan lagun izan dituen musikari gehienek lagunduta, bi kontzertu egin ziren azaroan, bata Hazparnen, 29an, eta bestea Donostian, 30ean. Bertan, honako taldeek eta lagunek hartu zuten parte: -gailu (Mikel Abregok eta Luis Andrek aurrera eramandako ikus-entzunezko egitasmoa [ikus. geu aldizkaria-urria/9. orr]), Sorkun, Kuraia, Bad Sound System; Xabier Silveira, Estitxu Arozena, Egoitz Zelaia eta Miren Artetxe bertsolariak; eta In-Komunikazioa diskoko musikariak.



eUSKALDUNON
denbora-pasa
eta hitz jokoen
hilabetekaria

12 ale ~~36€~~
urtean 30€



HARPIDEDUN izan nahi dut

ZOZKETA MUNDIALA HARPIDETZEN ARTEAN 2003KO MARTXOAN

DEITURAK: _____

IZENA: _____

HELBIDEA: _____ P.K: _____

HERRIA: _____ LURRALDEA: _____

TFNOA: _____ SORTEGUNA: _____

POSTA E: _____

Ordainketa mota:

☐ Txekea ☐ Kontu korrontea

Titularra: _____

Ipar E.H. _____

Ipar E.H. _____

LUMA, O.E. - Istillaga plaza 2 behe. - 20304 IRUN (Gipuzkoa)

Tfnoa: (0034). 943 62 95 64 - 943 63 08 83

E posta: lumazorrotz@infonegocio.com



ARROPA PREZIO EZIN HOBEOAN

- TXAMARRAK ETA GALTZAK
- TXAMARRAK FORRO POLARRAREKIN
- FORRO POLARRAK
- LO ZAKUAK
- MOTXILAK ETA PETATEAK
- ARTISAU ARROPA

ASTELEHENETIK

LARUNBATERA

GOIZ ETA ARRATSALEZ

IREKITA



ZURE EROSKETA EUSKARAZ EGITEKO AUKERA PAREGABEA



KORRERIA KALEA, 118-BEHEA

TEL/FAX.: 945 135 859

WWW.EUSKALNET.NET/EKHISC



JAVIER BERRUETA, ONCEko txistukari euskalduna

leire lpz. de aberasturi
argazkiak: edorta sanz

Dato kaletik pasa den gasteiztar orok ezagutzen du Javier Berrueta; Dato-Florida kale-etako izkinean ONCEko loteria saltzen dagoen 25 urteko mutila da. Gainontzeko saltzaileengandik bereizten duten bi ezaugarri ditu: euskaraz iragartzen dituela salgai dituen zenbakiak, eta egundoko potentziaz txistukatzen duela telebistak ezagun egin duen ONCEko loteriaren soinua. Marianistas ikastetxean ikasi zuen euskara gazte gasteiztarrek, eta duela hiru urte eta erdi lanean hasi zenean, jendearekin mintzatzea hizkuntza ez ahazteko modurik hoberena zela erabaki zuen; egun bezero batek baino gehiagok hitz egiten dio euskaraz. Umore handiko pertsona moduan aurkezten du bere burua Javierrek eta kexa bakarra du: lagun koadrila faltan ezin daitekeela nahi beste irten; horregatik, jendea ezagutu nahi du. Eskaintzak onartzen ditu.



Duzun bertuterik handiena?

Umorea.

Zer eskatzen diozu bizi-tzari?

Lagunak egitea aste-buruetan irten ahal izateko, eta musika jotzea, asko gustatzen zait eta.

Jeniorik ba al duzu?

Ez! Umore handia daukat.

GEU aldikaria eta GEU elkartearen berririk bai?

Orain artean ez.

Irratsaioren bat?

Irratia entzutea asko gustatzen zait, batez ere, Maritxu Berritsu eta kirol-tako programak.

Gogoko musikarik?

Joselu Anaiak, Gozategi, Egan, Ertzainak,...

Abesti bat?

Euskal Herrian Euskaraz eta Itziarren semea.

Braille-z irakurtzen al duzu?

Bai, aldizkariak eta liburuak irakurtzea gogoko dut.

Libururen bat?

"El gran lobo salvaje".

Braille-z euskaraz irakurtzeko aukerarik dago?

Bai, baina gutxi.

Jaki goxoren bat?

Arroza eta makarroiak.

Batere gustatzen ez zaizuna?

Niri dena gustatzen zait.

Azken oporrak non?

Aitaren herrian, Oteon. Bertan bizikletaz ibili eta igeri egitera joaten naiz.

Denbora libre gehiago izanez gero, zer egingo zenuke?

GEUrekin kolaboratzea gustatuko litzaidake.

Gasteizko bertso eskola. 20 urte:



1 982ko urrian lagun talde batek Abel Enbeitarengana jo zuen Gasteizko bertso eskola bat antolatzeko ideia eta laguntza eske. Helburua euskararekin gozatzea, lagunarte ona igarotzea eta tabernetan abesteko adina ikastea zen. Orduan ereindako haziak hogeitau urte bete ditu, Txusta tabernatik Amaia gizarte etxerako jauzia egin du,

Hogeigarren urtemuga ospatzeko gala bat egingo da abenduaren 20an Conde de Alava jatetxean

GASTEIZKO BERTSO ESKOLA

arabako euskalgintzaren altxorretako baten 20. urteurrena

leire Ipz. de aberasturi

argazkiak: artxibo

ehunka bertsolari eta bertsozaleen topagune izan da eta Gasteizko euskalgintzaren babes eta zutabeetako bat bilakatu da.

Hogeigarren urtemuga ospatzeko gala bat egingo da abenduaren 20an Conde de Alava jatetxean. Galaren ideia nondik atera den galdetuta, Oihane Perea bertsolariak eta bertso eskolako kide dinamikoetakoak "Principal antzokian saio on bat egitea" ere pentsatu zutela aitortu du, "baina gure Principaleko saioa txapelketa da eta bi aldiz antzokia betetzen saiatzea agian gehiegi zen", azaldu du hitz jokoa eginez. Maritxu Kajoi erako jai bezala definitu du Oihane, "gala izanda jendeari dotore jantzita joatea eskatuko baitzaio, trajea eta gorbata ala soinekoarekin, alegia".

Galaz jantzitako entzuleentzako emanaldi dotorea prestatu dute: Bertso eskolatik igaro diren hogeitau bertsolariarekin 'degustazio' baten ondoren Ruben Santxez-ek prestaturiko bakarrizketa entzun ahal izango da. Aurretik, antolatu den bertso-paper lehia-ketan saritu bertsoen kantaldia egongo da. Ekitaldiarekin "eskolaren historian zehar iragandako guztiak berriro gerturatzea nahi dugu, izan dugun garapena erakutsi", azaldu du Oihane Perea.

Txustatik Conde de Alavara

Duela hogeitau urte alde zaharreko tabernetatik larri irteten zen bertsolaritzak izan duen garapenaren isla izan daiteke urteu-



rrena ospatzeko "gala" bat antolatzea, non eta Conde de Alava jatetxean. "Prezioari begira ez da orain arteko bertso afariekin konparatuta alde handia egongo", argitu du Oihanek, inor beldurtu ez dadin.

"Nahiko lukete beste herrialdeetan hemen lortu dugun taldea izan!"

Gustuak gustu, eta salneurriaz aparte, Txustatik Conde de Alavarako jauzia handia dela egia da eta Gasteizko bertso eskolaren garapena adierazten du. Gasteizen Txusta taberna eta bertsoak sinonimoak diren arren, duela hiru bat urte Amaia gizarte etxean du bere egoitza eskolak, eta Arabako Bertsozale Elkartek. Etxe aldaketak filosofia aldaketa ekarri zuen, "garai batean informazioa zen, lagunartean elkartzen ziren taberna batean, baina haur eta gazteentzako ez zen egokiena", uste du Oihanek.

Gazteak dira eskolaren zutabea, "helduen taldea beti mantendu bada ere". Egun 60 bat lagun ari dira bertsolaritzaren sekretuak ikasten, zortzi urteko neska-mutiletatik hasita unibertsitateko ikasleetara.

Abel Enbeitaren laguntzaz eta lanaz egindako ikastaroetan parte hartutako ei burutik ere ez zi-

tzairen pasako izen handiko bertsolariekin kurtso osagarriak egiteko aukerarik ere egon zitekeenik. Egun ohiko ikastaroeaz gain, osagarriak ere antolatzen ditu eskolak, aurtengo urritik abendura egiten ari direna Aitor Mendiluzerekin zuzendaritzapean da, eta duela hiru urtekoa Andoni Egañarekin egin zuten.

Puntako bertsolariekin ikasteaz gain, plazara irteteko aukera ere badute egungo Arabako bertsolaririk onenek, bertsolaritzak izan duen gorakadari esker urtean 25 saio egitera iristen dira, herrietako jaietan, ikastoletan, lehiaketetan, eta abar.

Taldearen indarra

Gasteizko bertsogintzaren haziera "taldean" izan dela azpimarratu du Oihane Pereak, "inor gehiegi nabarmendu gabe", dio apaltasunez. "Eta gehiago erakarri du jendea talde giro horrek beste ezerk baino", uste du Oihanek.

"Nahiko lukete beste herrialdeetan hemen lortu dugun taldea izan!", adierazi du harro. Izan ere, lan talde bikaina lortu du Gasteizko eskolak, "bertsolaritza aktiboa alde batera utzi dutenek ere inplikatu jarraitzen dute, ikastaroak emanez eta nola edo hala lan eginez".

Gasteizko eskolako gazteak dira, hain zuzen ere, Arabako gaitz nontzeko eskoletan irakasle. Aiara, Legutio, Aramaio, Zuia, Agurain eta Kanpezun ari dira gazteak herriz herri bertsolaritzarako zaletasuna sortzen. Arabako aitzindari izanda, Gasteizko bertso eskola herrialdeko besteen erdigune edo ardatz bihurtu da.



Abenduaren 20an Gasteizko bertso eskolaren 20. urteurre- neko gala

- Afaria Conde de Alava jatetxean, iluntzeko 9etan
- Argazki diaporama
- Bertso paperen kantaldia
- Kapitain bertso-ren monolo-

goa

- Eskolatik pasatako bertsolariekin, 'degustazioa'
- Bertso festa

Izena emateko: abenduaren 16 baino lehen. Arabako bertsozale elkartearen (945287617)

JOSETXO taberna

"ez dago pintxorik"

Elizalde, z/g
Tfnoa: 945 31 45 74
ARAIA (Araba)

GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 • 01001 - GASTEIZ

IZARRA TABERNA - JATETXEA

BITORIANO - ZUIA (ARABA) • Tfno: 945 430 073

MARRAZKIAK • KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

bizitza kalitaterantz

ekomundua



"BESTE MUNDU BAT POSIBLE DA"

testua: ekomundua

Joan den urriaren 4an, 5ean eta 6an Ekomundua erakusketa izan zen Iruñean Ieta Gasteizen, urriaren 5ean, Bionekaraba 2002, Arabako V. Azoka ekologikoa, Eko-nekazaritzatik -Nekazaritza ekologikoaren Euskadiko Federazioa- bideratua; Euskal Herri osoko zein Burgos, Errioxa eta Kantabriako produktu ekologikoak erakusgai, dastagai, salgail: "Kultura Ekologikoaren eta Kontsumo Berdearen VI. Erakusketa." Econavarra Kultur Elkarteak antolatuta, aurreen berrikuntza ugari izan ditu. Hasteko, orain arte azoken eta jardueren antolamenduaz arduratzen zen taldea aldatu egin da eta aurreen talde berriak antolatu du erakusketa. Bestalde, azokaren izendapena ere aldatu egin da: orain arte Econavarra izenez ezagutzen zen eta VI. ekitaldi honetan Ekomundua izena jarri diote eta eslogana "Mundua alda dezakegu" izan da, kultura ekologikoa osatzen duten elementu guztiak biltzeko ideia transmititzeko asmoz.

Lurrean bizi garen pertsona guztiak gure ingurunea eta gure burua zaintzeko edo egoki-

tzeko ardura eta boterea dugula pentsatzen dugu, horretarako gure eguneroko ekintzak eta erabakiak erabiliz: elikatzeke eta janzteko modua, aukeratzen dugun kontsumo mota, bizi garen etxeke materialak, basoen eta berdeguneen aurrean dugun jarrera, ura, elektrizitatea, gasa..., erabiltzen ditugunean kontsumitzen dugun energia kopurua..., guztiok planetak bizimodu jasangarria izateko aukera egokiak egiten baditugu, gauzak asko hobetuko dira.

Hala, bada, Ekomundua erakusketa jendea aukera horri buruz informatzeko gune aproposa da eta gure buruarekiko nahiz gure inguruarekiko kontsumo arduratsuagoa eta bizimodu osatsua goa posible dela ikusten da:

Kontsumo Berdearen Erakusketan 50 erakustokik kontsumitzeko beste aukera batzuk eskaini zizkiguten: elikadura, kosmetika, liburuak, zuhaitzetan inbertitzea, feng-shui, bioeraikuntzarako materialak, musika, lurrun-eltzeak, altzairuak, ehunak, osasuna, animalien askapena, artisautza, bidezko merkataritza, ekologia.

Asteburu osoan hitzaldiak egon ziren eta gai ugari aztertu ziren: transgenikoak, lorezaintza ekologikoa, zor ekologikoa, Johannesburgori buruzko ondorioak, kontsumoan arduraz jokatzea, komunitate indigenak, elikagai biologikoak, lasto bidezko bioeraikuntza, baso-berritzea eta basoen erabilera jasangarria.

Lantegiak ere izan ziren, guztiak dohain: yoga, meditazioa, pranayama, adimen emozionala, biodantza, barrearen terapia, shiatsu masajea, feng shui, giza ekologia eta haurrentzako jarduerak birziklatutako materialekin.

Nekazaritzari eta garapen jasangarriari, insumisioari eta arte latinoamerikarrari buruzko erakusketa informatiboak ere ikusi ahal izan genituen.

Ikasleentzako ekologia lantegiak ere izan ziren (kulturartekotasuna, eguzki asmamenak, bidezko merkataritza).

Giro paregabea izan genuen ekintza guztietan eta sarrera dohain zen jende guztiarentzat.

Aurreen instituzioen aldetik laguntza ekonomikoak oso urriak izan direnez, Ekomundua erakusketa egiteko ahalegin handia eta hainbat pertsonaren lan izugarria beharrezkoak izan dira; gure aldetik, pertsona horiei eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu. Pena da horrelako ekimenek beharrezko duten laguntza ekonomikoa ez izatea, asteburu bakar batean 18.000 pertsona bildu dituela kontuan izanda.

gai toxikoak

ETXEKO GAI KIMIKOAK, maizter arriskutsuak



testua: 'traperos de emaus'en taldeen eta
rezikleta-ren erakusketa (AERESS; asociación
de grupos recuperadores de economía social
y solidaria)

[testu itzulia (aztiri)]

argazkiak: edorta sanz

Etxean erabiltzen diren produktu askok gai kimiko arriskutsuak izaten dituzte maiz, eta zaborrontzira botatzen ditugunean edo hustubideetatik isurtzen direnean, ingurumena kutsatzen dute. Horrelako produktuak gero eta gehiago erabiltzen ditugu eta, beraz, gure osasunerako eta izaki bizidun guztientzat mehatxu garbia adierazten dute. Etxeko gai toxikoak dira.

1 taza de café para 5 litros de agua. Añadir
● EN MAQUINA DE LAVAR:
Incorporar TENSO-AMONIACO LUMINIA en el lugar.
● Baldosas, Terrazo, Mosaico, etc...
2 tazas de café por litro de agua caliente.
● OTROS USOS:
Limpieza de peines, cepillos, tapizados de coche
● EN MANCHAS REBELDES APLICAR EL PRODUCTO
CON AGUA.



TOXIKOAK BADIRA, ZERGATIK SALTZEN DITUZTE?

Merkaturatzen dituzten konpainientzat oso negozio errentagarria delako. Ez enpresek eta ez gobernuek ez dituzte kontuan hartzen osasunari eta ingurumenari egiten dizkieten kalteak.

EZ DA KONTUZ ETA ARRETAZ JOKATZEN

PRODUKTU BAT MERKATURATZEAN...

GAUR EGUNGO EGOERA: Gure sufrimenduak erakusten du produktu batek dakarren arriskua.

- Enpresa batek produktu berri bat merkaturatzen du.
- Proba gutxiegi egiten dira.
- Oso modu masiboan merkaturatzen da.
- Istripuak, gaixotasunak, heriotzak.
- Ondoren egiten diren ikerketek produktua arriskutsua dela erakusten dute.
- Zigorra ezartzen zaio enpresari (kasurik honenetan) eta kalte ordainak ematen dira.

ARRETAZ JOKATZEA: Ez dira osasuna eta ingurumena arriskuan jarritzen.

- Enpresa batek produktu berri bat merkaturatu nahi du.
- Probak egin behar ditu.
- Arriskuak egon daitezke.
- Dagokienei horren berri ematen zaie.
- Produktua debekatu egiten da.
- Irtenbideak bilatzen dira.
- Produktuak probak gainditu ondoren, merkaturatu egiten da.
- Aztertzen jarraitzen da.

DATUA

Merkatuan 100.000 gai kimiko sintetiko baino gehiago daude, eta urtero 1.000 gehiago sartzen dira. Gehienak ingurumenari eta pertsonen egin diezaiekeen kaltea ondo aztertu gabe merkaturatzen dira. Gainera, arriskua neurtzerakoan, gai kimiko bakar baten esposizioa soilik aztertzen da, baina eguneroko bizitzan ez da inoiz horrelakorik gertatzen; gainera, ikerketak egiteko 70 kg inguruko gizon heldua hartzen da prototipotzat; horrek, giza enbrioian, umeengan eta emakumeengan izan dezakeen eragina ikerketatik kanpo uzten du.

HOBETO PENTSATU... eta gutxiago erosi

ZERGATIK DIRA TOXIKOAK?

ERABILTZEN DITUGUNEAN...

-ZUZENEAN KALTE EGITEN DIGUTELAKO

- Erabiltzen ari garen bitartean gure osasunari kalte egiten diote.
- Askotan ez dira behar bezala erabiltzen eta aholkatutako kopuruak gainditu egiten dira. Beraz, ondorio negatiboak ere areagotu egiten dira.

-KONTURATU GABE EGITEN DIGUTELAKO KALTE

Gerta daiteke produktu hori usainik gabekoa edo

ikusezina izatea edo bat-bateko sentsaziorik ez eragitea baina zeharkako ondorio larriagoak izatea.

Etengabe gai kimikoekin kontaktuan egoteak minbizi kasuak areagotzen dituela, hormona sisteman aldaketa larriak eragiten dituela eta bizidunen immunitate gaitasuna murrizten duela uste da.

HONDAKIN HAUEK TOXIKOAK DIRELAKO

(erretzen direnean, zabortegetan, uretara isurtzen direnean):

Ez dira arriskutsuak produktuak bakarrik, produktu horien ontziak ere arriskutsuak dira.

SENDAGAIK, botika-ontzia ala arriskuen ontzia?

ZER DAUKATE TOXIKOAK IZATEKO?

Legeek diotenez, osagai farmazeutikoak hondakin arriskutsua izan daitezke.

SENDAGAIK

ERABILTZERAKOAN:

Osasunari egiten dioten kaltea:

- Kimika farmazeutikora errazegi jotzea pixkana-pixkana geure burua pozoitzeko modu bat da. Medikuntzak gaur egun horrelako sendagaiekiko dependentzia sustatzen jarraitzen du, eta prebentzioa alde batera utzita.

Arriskuak:

- Aurkako erreakzioak.
- Alergiak.
- Sendagaiekiko dependentzia.
- Aplikazio okerrak (dosia gainditzea etab.).
- Sendagaien arteko elkarreaginak.

HONDAKIN MODURA:

Ingurumenari egiten dion kaltea:

-Sendagaiak eta horrelako gai konplexu eta toxikoak isurtzeak kalte handia egiten dio ingurumenari, hustubideen, zabortegetien eta errausteko planten bidez, ura, lurra eta airea kutsatzen baita.

Osasunari egiten dion kaltea:

Ingurumen arazo oro potentzialki osasun arazoa da: kutsadura geuregana itzul daiteke elikadura katearen eta uraren bidez, bumeran toxiko bat balitz bezala.

Antibiotikoak dira arrisku handiena dakartenak: urarentzat eta berau garbi mantentzeko garrantzi handia duten bakterioak suntsitzen dituzte, edota konpostaje prozesua sustatzen duten bakterioak akabatzen dituzte.

(prozesua: gorputzak antibiotikoak kanporatzen ditu pixaren eta gorozkien bidez; antibiotikoak urarentzat onak diren bakterioak suntsitzen ditu; akuiferoak + ibaiak + itsasoak kutsatzen dira; ura edaten dugu, edo arrainak jaten

ditugu).

Antibiotikoen kasuan, uretan eta elikagaietan daudenez, horrelako sendagaien aurrean gero eta erresistentzia handiagoa izango dugu; eta horrek gaitasun larriak sendatzea zailtzen du.

Zer egin dezakegu?

- Sendagai gutxiago hartu, batez ere norberak bere kabuz hartzen dituenak. Nahitaezko kasuetan hartuko ditugu.
- Ohitura osasungarriak geureganatuz, gaixotasunak saihestuko ditugu: atsedeen nahikoa hartu, kirol pixka bat egin, ondo elikatu etab.
- Medikuntza naturaleko hainbat teknika egokiak izan daitezke.

DATUA

Munduan izaten diren heriotzen % 40 eta gaixotasun gehienak ingurumeneko faktoreen ondorio dira. Exijitu dezagun Ingurumen osasungarria izateko dugun eskubidea.

Xabier
taberna
musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (KUTXI), 23

EL
BAR
Kutxi
e g u n e k o

bar · restaurante ·
albéniz
Errege atea, 9 · GASTEIZ
Tfnok: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

LA RIOJANA
jatetxea
on egin!
bokatak,
pintxoak,
kazulatuak
Aiztogile kalea (Kutxi), 33 · tfoa. 945 25 02 39

ZALANTZA HANDIAK DAUDELAKO...

Zer-nolako ondorioak ditu egunero horrelako gai toxikoekin kontaktuan egoteak?

Eragin horiek jasaten ditugula eta airearen, uraren edota lurraren kutsaduraren ondorioz beste gai kimiko batzuen esposizioa ere jasaten dugula kontuan hartuta, zer gertatzen ari da?

...ONENA HORRELAKORIK EZ ERABILTzea DA**Zer egin dezakegu?**

- Produktu horien konposizioari eta ondo-

rioei buruzko informazioa bildu.

- Etxean erabiltzen diren gai toxiko horien kontsumoa ahal beste murriztu.
- Erabiltzekotan, ondo erabili: dosifikatu, ontzia tapaz estali, etiketa ezarri... Hondakinak eta kutsadura murrizteko zuzen erabili.
- Gai horiek murrizteko, arretaz jokatzeko eta dauden irtenbideei buruzko ikerketa gehiago egiteko exijitu fabrikatzaileei.
- Susmagarriak diren produktuei boikota egin.
- Administrazioari kontuz jokatzeko irizpi-deak betetzeko eskatu.

DATUA

Maiz, erabiltzen dituzun gai toxiko asko ez dira beharrezkoak. Zein dira? Horietako asko erabili beharrik ez duzula eta bete batzuetan beste aukera batzuk ere badaudela ikusiko duzu.

METAL ASTUNAK, betiko nabigatzaileak**PILAK... ZER DAUKATE TOXIKOAK IZATEKO?**

Espainiar estatuan, urtero botoi formako 17 milioi pila baino gehiago erabiltzen dira.

HONDAKIN MODURA...

Ingurumenari egiten dioten kaltea:

Pilen kanpoko aldea hondatzen hasten denean, metal astunak askatzen ditu. Hauek ia betiko gelditzen dira naturan, eta beren toxikotasuna areagotzen duten aldaketak jasaten dituzte gainera (adibidez, urarekin kontaktuan daudenean). Metal astunak metatu egiten dira pixkana kide batetik bestera elikadura katean (planktona, algak, arrainak, itsasoko ugaztunak, gizakia) eta, ondorioz, gero eta kontzentrazio maila altuagoa izaten dute.

Osasunari egiten dioten kaltea:

Airearen, uraren eta janari askoren bidez (arrainak, moluskuak...) kutsa gaitzke. Pilek honako osagai hauek dituzte:

- Merkurioa: oso toxikoa da irensten,

arnasten edo azalaren bidez xurgatzen bada. Nerbio sisteman, garapen mentalean eta metabolismoan du eraginik handiena. Ugalkortasunari ere kalte egiten diola uste da.

- Kadmia: toxikoa da arnasten bada edo kutsatutako janariak hartzen badira. Anemia edo gastroenteritisa eragin ditzake, eta funtsezko organoak eta bizkarrezur muina kaltetu ditzake. Barrabiletako ehuna suntsi dezake. Dosi handietan, heriotza eragin dezake.

IRTENBIDEAK

Pilen erabilera ahal beste murriztea, esate baterako:

- Energia zinetikoarekin aktibatzen diren ordulariak (besoaren mugimendua).
- Eguzki panelak eta berriro karga daitezkeen bateriak dituzten kalkulagailuak, linternak, jolas hezigarriak etab.
- Berriz kargatzen diren pilak, sare elektrikora konekta daitezkeen tresnak.

DATUA Botoi formako pila baten edukiak 600.000 litro ur kutsa ditzake, urte betean 5 kideko familia batean kontsumitzen dena baino gehiago (gutxi gorabehera 300 l/ pertsona / egun).

**KONTSUMO TXIKIKO BONBILAK ETA FLUORESZENTEAK:**

Kontsumo txikiko bonbilla batzuek merkurioa dute. Fluoreszente guztiek merkurioa dute, baina, gainera, 1978. urtea baino lehenagokoek PCBak dituzte.

IRTENBIDEAK: horien erabilera murriztea, argi naturalaren erabilera sustatuz.

HORTZETAKO ENPASTEAK:

IRTENBIDEAK: erretxinazko eta beirazko amalgamak.



Sagardotegia

Arraga auzoa.

Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

OSTIRALETIK
IGANDERA IREKITA.
ASTEAN ZEHA
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:
HAMAIRETAKOAK ETA MERIENDAK

IRYSTA

poteo eta pintxoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

GARBIGAIK: desinfektatu edo kutsatu?

LIXIBA... TOXIKOA AL DA?

Kloroaren deribatuak, arruntan hipoklorito sodi-koa (lixiba likidoa) edo hipoklorito kaltzikoa (zuritze-ko hautsak).

ERABILTZEN DUGUNEAN...

Osasunari egiten dion kaltea:

- Irensterakoan toxikoa da eta korrosiboa ere bai, azala erre dezake.
- Lurrunkak begiak eta arnas aparatua narritatzen ditu.
- Produktuak nahasten baditugu (lixiba eta amonia-koa, lixiba eta komuneko desinfektatzailea...), erreazioek intoxikazio larriak eragiten dituzte.

HONDAKINAK:

Ingurumenari egiten dion kaltea:

- Hustubideetatik botatzen dugun lixiba tutuen bidez ibaietara eta itsasora iristen da eta toxikoa da arraintzak eta uretako bestelako bizi formetarako.
- Ur zikinen materia organikoa deskonposatzen duten bakterioak onuragarriak suntsitzen ditu.
 - Ur zikinen araztegiak betetzen dituzten konposatu toxikoak metatzen ditu.

IRTENBIDEAK

- Ozpina erabil daiteke garbitzeko eta desinfektatzeko.
- Arropa garbitzeko, ardo zuriaren ozpin pixka bat edo bikarbonato apur bat.
- Boraxa erabil daiteke koipea kentzeko, zuritzeko eta desinfektatzeko eta garbitzeko.

Garbiketarako egiterakoan egunero erabiltzen ditugun

BESTE PRODUKTU toxiko batzuk honakoak dira: hodi-libratzaileak, komuneko desinfektatzaileak, orbanak kentzeko produktuak, labeak garbitzeko produktuak, koipea kentzeko produktuak, tapizeria garbitzeko produktuak, leungailuak, detergenteak, alta-



riak garbitzekoak, zoruak garbitzekoak, kristalak garbitzekoak.

Horiek guztiak modu erraz eta ekologikoagoetan egin daitezke.

IRTENBIDEAK

HAIN TOXIKOAK EZ DIREN GARBIKETAK EGITEKO TRUKUAK:

- Produktu baten kopuru berbera erabili beti.
- Hain toxikoak ez diren errezeta naturalak ikertu eta erabili.
- Ura, ozpina eta xaboi leunarekin etxe guztia garbi daiteke.
- Zikinkeria oso sartuta baldin badago edo "karraskatzeko" beharra baldin badugu, limoi zukua, bikarbonatoa edo boraxa erabil ditzakegu.
- "Ez da garbiagoa gehien garbitzen duena, baizik eta gutxien zikintzen duena": esapide hori egia da etxean koipe gehien hartzen duten txokoetan: labean, sukaldean... Ekologikoagoa da maizago garbitzea produktu urratzaileak edo narritagarriak erabiltzea baino.

DATUA

Etxe askotan litro bat lixiba kontsumitzen da EGUNERO!

LIZARRALDE SOINYA
TXALAPARTA, S.L.
SOINU PROFESIONAL • MEGAFONIA
ESPASIO HAUNDIEN SOINUZTAPENA

945 226 977
GASTEIZ

Azkarprint
Imprenta / Imprimategia

Helbide berria...
Landazuri, 7

• INPRIMATEGIA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ

INTSEKTIZIDAK, AIRE-FRESKAGARRIAK ETA TABAKOA: airea gaixorik



INTSEKTIZIDAK... ZER DAUKATE TOXIKOAK IZATEKO?

Diazinon, diklorbos, lindano edo organofosfodunak izan ditzakete, eta asko kutsa dezakete hauek.

Osasunari egiten dioten kaltea:

Azalaren eta begien narritadura, fetuaren malformazioak eta alergiak. Nerbio sistemari eragiten diote. Kantzerigenoa izan daitekeela pentsatzen da. Estali gabe dauden janariak kutsa ditzake.

Ingurumenari egiten dioten kaltea:

Gure etxeko airea kutsatzen dute. Aerosol bidez ontziratzen direnez berotegi efektua bultzatzen dute eta oso arriskuak dira (oso erraz leher daitezke).

IRTENBIDEAK

- Belar usaintsuak jar daitezke, batez ere albaraka, erromeroa eta ezkaia.
- Ura, azukrea eta xarabe melea nahastu eta zatar paperezko zatiak busti



daitezke nahasketa horretan.

- Laranja edo limoi azalak eta iltzeka-nela jar daitezke ontzi zabaletan.

AIRE-FRESKAGARRIAK... ZER DAUKATE TOXIKOAK IZATEKO?

Naftalenoa, fenola, paradiklorobenzenoa eta beste gai toxiko batzuk dituzte, limonenoa, adibidez. Paradiklorobenzenoa debekatuta dago Europako herrialde askotan.

Osasunari egiten dioten kaltea:

Usaimenean eta ikusmenean zenbait nahasketa eta alergiak. Arnas arazoak, buruko mina eta goragalea. Limoneno sintetikoak kantzerigenoa izan daitekeela uste da.

Ingurumenari eragiten dion kaltea: gure etxeko airea kutsatzen dute. Aerosolen bidez ontziratzen denez, berotegi efektua bultzatzen du eta oso arriskugarria da (oso erraz leher daiteke).

IRTENBIDEAK

- Garrantzitsua eta oso erraza: etxea egunero ondo aireztatzea.
- Azal, fruta eta lore lehorrak eta esentzia naturalak ezar daitezke ontzietan.

DATUA

Frogatuta dago tabakoa tumore kantzerigenoen % 25en kausa dela. Pertsona helduen artean horixe da sufrimendu eta heriotza kausa handiena.

- Landare usaintsuak (ezkaia, erromeroa, izpilikua) edo loreak erabiltzea. Iltzea eta kanela egostea uretan su baxuan poliki-poliki. Intsentsua, mirra edo beste erretxina natural batzuk erretzea.

TABAKOA... ZER DAUKA TOXIKOAK IZATEKO?

Tabakoaren keak 200 gai kimiko baino gehiago ditu, horietako 40 kantzerigenoak.

Osasunari egiten dion kaltea:

Eztarriko edo biriketako minbizia izateko arriskua eta zirkulazio gaixotasunak izateko arrisku handiagoa. Gainerako pertsonen kalte egiten zaie, erretzaile pasibo bihurtzen baititu ingurukoak.

Ingurumenari egiten dion kaltea:

Gure etxeko airea kutsatzen du. Komuneko zulotik botatzen diren zigarrokinak ibai eta itsasoetara doaz eta araztegiak gainkargatzen ditu.

Eta datorren alean: arropa eta jantzi-sitsen aurkako produktuak; pinturak, kutsatzen duten koloreak; PVCa; hozkailuak eta haize egokietua; ordenagailuak; eta kotxeak.

sartu
Zure arropa eta oinetakoak
www.sartudenda.com
Kutxilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710

BARRA
TABERNA
Egonditza, astrolanenetik ostiralerako
JANTOKI
BEGETARIANOAK
SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 65 33

Argazki - Estudioa
Erramun
Heradio Fourrier, 23
Inoa: 13 71 02
01006
Askatasun kalea, 5
Inoa: 76 19 91
01004

Uetzal
Hegoamerikako
jantzirik ederrenak
Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko
ortzean) Tfnoa: 945 25 03 52

IDIAZABALGO GAZTARIK ONENA, ARABAKOA!

leire lpz. de aberasturi
argazkiak: edorta sanz



Iruñe Audikana. Gereñu

Lehiaketaren izenak berak adierazi bezala, artzainek egindako gazta da Lopez de Sagarnak eta Audikanak saltzen dutena: artalde bereko ardi esnez eta axuri gatzagiaz. Gazta industrialek artalde ezberdinetako esneaz egiten dira eta behi esnea ere izaten dute; kontsumitzaileak aldea zaporean nabaritzen du, baina ezberdintasuna handia da, Idiazabalgo Jatorrizko Izendapenaren barruan egiten direnak mimo eta dedikazio handiz egiten direlako arbasoen tradizioari begira.

Saria lortuko duen gaztak ez du zapora ona izan behar bakarrik. Mari Carmen Lopez de Sagarnak azaldu duenez, epaileek "itxurari, usainari, zaporeari (hasierakoa eta ahoan uzten duena) eta koloreari" erreparatzen diete, beraiek "gazta borobila" deitzen dutenaren bila.

Artzain gaztaren 19. lehiaketaren lehenengo bi sariak arabarrek jaso zituzten eta dagoeneko badira hamaika aldiz txapela Arabara etorri dela.

Lehenengo eta bigarren saria jaso zuten gaztak Larrea eta Gereñu eginak dira. Gazta onaren elaborazioan aurrerapen teknikoak sartu diren arren, betiko era tradizionalan lan egiten jarraitzen dutela azaldu dute irabazleek. Eta tradizioak agindu legez ere, emakumeen esku dago produktua; horregatik, ofizialki irabazleak Jose Ignacio Gonzalez de Heredia eta Andres Audikana izan arren, GEUK Mari Carmen Lopez de Sagarna eta Iruñe Audikanarekin hitz egin du.

Lana eta ahalegina

Borobilak dira, beraz, Gereñu eta Larrean egiten direnak. Iruñe Audikanak gazta ona egiteko sekreturik ez dagoela dio, "lana da sekretu bakarra, eguneroko ahalegina, egunetik egunera gehiago eskatzen diogulako geure buruari". Lopez de Sagarnak Arabako zenbait herritan, Larrea, Egino, Munain eta Gereñu, oso produktu ona lortzen dela azaldu du, "jatorri izendapena Idiazabal deitzen jendeak gaztarik onena han egiten dela uste du, eta oso onak egiten dituzte, baina Arabakoak ere bikainak dira".

Artalde zaindu eta gazta egitea lan gogorra dela onartu dute biek, sakrifikatua bai behintzat, "inoiz ez dira lanak amaitzen". Garai honetan hasiko da lanik latzena, gazta abenduaren erdialdetik uztailaren erdialdera egiten baitute. Lan hori emakumearen esku egon da eta dago, gizona abereekin ibiltzen den bitartean, "% 95etan andreak dira gazta egiten dutenak".

Gazta esne gordinez egiten denez, bi hilabetez egon behar da hozkailuetan saldu baino lehen. 60 egun igarota salgai jartzen da; bai Lopez de Sagarnak baita Audikanak ere etxean bertan saltzen dute ekoiztutakoa. Iruñe Audikana ferietara ere joan ohi da urtean zehar egiten dituen 3.000-3.500 gaztak saltzera; Mari Carmen-ek gehixeago egiten ditu, 4.000 inguru.

**"% 95etan
andreak
dira gazta
egiten
dutenak"**

Kalitatea eta salneurria

Sei litro esne behar dira artzain gazta on bat egiteko. Sei litroei gaztagia, ardien bazka, lana eta teknologia guztiaren kostua gehituko balitzaie, nahiko produktu garestia aterako litzateke, "baina ez da balio duen guztia ordaintzen", Irunek dioenez. Hala ere, gizarteak ondo egindako lana eta kalitatezko produktu bat erostearen garrantziaz gero eta gehiago ohartzen dela uste dute egileek. "Batzuetan entzuten duzu, 'Eroskin erosten dudana askoz ere merkeagoa da', eta merkeagoa izango da, baina nola egin dute?, ardi esnez egina da?", galdetzen dió bere buruari.

Egindako lanak gizartearen onarpena lortzeko Kalitatea fundazioak eta Jatorrizko Izendapenak gauzatu zabaltze kanpainak garrantzitsuak izan dira. Betidanik gure artean egon diren produktuak begien aurrean jarri dizkiguten erakunde eta taldeek ere horien kalitatearen alde egin dute, garbitasun neurriak eta kontserbaziorako arauen medioz.

Irunek eta bere bi nebek hamazazpi urte daramate ardiekin lanean eta hamabi bat gazta egiten; Mari Carmen eta bere senarra 1988tik ari dira lan horretan. "Hasi ginenean oraingo arau berdinak genituen, ez dugu aldaketa handiegirik nabaritu", esan du Mari Carmenek. Irunek, oster, eskaki-



Gereñuko gazta

zunek "enpresa txiki bat bezala lan egitera behartzen" dutela dio.

Hala ere, ez bata ez bestea ez dira arau eta eskakizunex kexatzen, kalitatezko produktua ekoizteko egin behar dituzten frogen zerrenda luzea den arren: ardien produkzioaren kontrola, esnearen asteroko analisia, gazta saldu aurreko testa eta Osasun Sailaren kontrolak. Guztiak "gazta borobila" erdiesten laguntzen du.



Larreako gazta

"Arabako zenbait herritan, Larrea, Egino, Munain eta Gereñun, oso produktu ona lortzen da"



M^a Carmen Lopez de Sagarna eta Jose Ignacio Glz de Heredia. Larrea

CEGASA PILAK INDARTSUENAK ETA EKOLOGISTENAK

%0a

CEGASA
INTERNATIONAL
ALCALINA

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA
Andaluzia kalea 13
☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ

XABIER
AIZPELEA HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3
☎ 945 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 eta 3
☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

ABENDUA

2 Adi Parral tabernako 7. Urteurrenari, eta asteartero antolatutako ekitaldiei! 20.30etan Cortada jaialdiaren hasiera (2tik 5era). Guridi zinemetan, 20.00 eta 22.30etan	3 Parral. 7. urteurrena: Detritus teatrua, "Las punkis también lloran" antzezlan. 20.30etan.	4 Parral. 7. urteurrena: "Erbestean" rock kontzertua. 20.30etan Pikareska. Quevedo-tik gaur artean'. Erakusketa. 4ra arte. Unibertsitate pabilioian 8.00-20.30	5 Parral. 7. urteurrena: Lunch-a 20.00etan. Ondoren: "Paco m?agia y humor" magoa Zinema Euskaraz Bagare-rekin: oste-gunetan, Mikeldi zinemetan	6 -6tik 8ra. Udalbiltza-ren HerrienEskubideen Aldeko Nazioarteko Konferentzia. 3-Donostiako Kursaal Jauregian. Inf.: kanpo@udalbiltza.net / 944163452/943335243 -6tik 8ra 'Euskal Herria ezagutu' urteroko ekimena Bagaren: aurten Enkarrietara 945252084/635705173	7 Gauekoak. I. antzerki erakustaldia: antzerki talde lehiaketa. Baldintzak: antzerki talde amateur bateko kide, taldeko teknikari eta artisten % 60 14 eta 30 urte bitartekoa eta arabarrak izatea. Izena emateko epea: abenduak 7. Eta adi Gauekoak-en gainontzeko eskaintzei!
--	---	---	---	--	--

ADI HIKAAETENEOKO EGITARAUARI 3: Hitzaldia (Marta Harnecker) 11: Hitzaldia (Alfonso Moro, ekonomilari mejikarra) 12: Hitzaldia (BoliViako talde feminista) 13-14: Tailerra (Alfonso Mororekin) 18: Hitzaldia-erabakia (Elkarri: bake konferentzia)	10 Parral, astearteetako ekitaldia: "Belebizi" taldearen "Ketakoia" kabareta. 20.30etan	11 Geu aldizkaria. Geu elkarte. 10. Urteurrearen egitarauaren hasiera: 'Urrats berriak hizkuntz berreskurapen lanetan' hitzaldi-tailerra (Gasteiz egokitua), SEI elkarte (euskaletako soziolinguistika institutua) kide Pablo Suberbiolaren eskutik, 20.00etan, Jardin de Falerina kafetegian (Montehermoson)	13 Geu. 10. Urteurrena. Kontzertua: KOKEIN; rock berria, soinu berriak, estreinako diskoaren aurkezpena. 22.30etan, TAPIOCAn (Sarrera: 4 euro)	14 'Oztipo guztien gainetik, Bonberenea' CDaren aurkezpena Gasteizko Gaztetxean: Anari + Selam (Toulouse); 22.30etan 'Metamorfosis'. Erakusketa. Feliciano Lopez Pastor. Agiritegi probintziala. 14ra arte Argazki rally-a: "Gabonak alde zaharrean", abenduaren 14tik 21era (parte hartzeko deitu: 945243922 (Argazki elkarte) edo 945282238 (Erdi Aroko hiriguneko merkatarien federakuntza eta Gasteiz on-Erdi Aroko hirigunea)
--	--	--	---	---

15 'Femenino Plural' erakusketa. Zuloa-n 15era arte (21 emakume artistaren artelanak ikusgai; arteak generoa du?) Familia-antzerkia: Altxor bat patrikan (Txotxongiloak). 17.00etan, Harresi aretoan, Agurain	17 Geu. 10. Urteurrena: ZIRRARAK, olerkiz jantzitako bidai diaporama, jerrak (xabier errasti) bidaiariaren eskutik. 20.30etan, Parral tabernan	18 Film laburren erakustaldia. 20.00etan, Montehermoso Kulturunean	19 Urtz taldea, Arabako Campuseko Unibertsitate pabilioian. 19.00etan	20 Gasteizko bertso eskolaren 20. urteurreneko gala-afaria, Conde de Alava jatetxean, iluntzeko 9etan. Izena emateko: abenduaren 16 baino lehen, Arabako bertsozale elkartearen (945287617) 'Euskararen erabileran eragin' jardunaldia. UEUren egoitza nagusian, Eibar. SEI. Informazioa: www.sortu.org/ sei@sortu.org. Izena eman behar.
--	---	---	--	--

21 Gauekoak- Udazkena, asteburuko gauetan aisialdiaz gozatzea. Abenduaren 21era, ostiral eta larunbatero GAUEAN. Argibideak: 945215161 / www.gauekoak.org	24 OLENTZERO. kalejira	26 Soziedad Alkoholika, Azkena aretoa. www.azkena.com
--	---	--



30
Urte amaierako kontzertua Strauss Orkestra Filarmoniko austriar-txekiarra. Principal antzokia. 20.30etan



Arabako argazki elkartetik...

testua: argazki elkarte

"BEHIA ETA GIZONA"

- Egilea:

Toño Antón Veiga

- Teknika:

Desenfokatua ikusten

- Azalpena:

Bigarren plano batzuetan, nahiz eta
desenfokatua izan,

bestea baina hobeto ikusten da edo
garrantzitsuagoa da. Argazki honetan,
lehen planoan, gizonaren eragina ikus-
ten dugu -beti han, edozein lekutan-
baina bere lekuan dagoena, patxadan,
animalia da. Bera ez da mugitzen, ia-ia
ez da ikusten, baina hantxe dago, geuk
jakiteko hori bere lekua eta bere paisa-
jea dela.



Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azerlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"

Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behe - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

ametsak

Kañamo Denda - Grow shop

C/ Herreria nº38 01001 Gasteiz
Tel-Fax: 745 26 46 43

Idazleen gorpila, istorio kateatuak: bertako idazleek alez ale osatuko duten istorio kateatua (edo kateatuak!), Geu aldizkarirako espreski. Lourdes Oñederrak eman dio hasiera atalari eta Patxi Zubizarretak jarraituko. Ondoren, Iban Zaldúa; gero



LOURDES OÑEDERRA

Hamar aldiz abiatu zuen autoaren motorra eta hamar aldiz itzali. Ez, beste bost minutu emango zizkion. Nola utziko zuen han, nola alde egin ezer esan gabe. Baina berandutzen ari zitzaion, zeregin handirik ez bazuen ere, berandutzen ari zitzaigola iruditzen zitzaion. Han egoteak, ezer egin gabe, autoaren barruan, bera bakarrik, kale isil hartan.

Berehala itzuliko zela esan zion neskak autotik ateratzean. Gelditzeko hor-

txe, bera momentutxo batean igoko zela, igo eta jaitsi, tri-tra, berehala jaitziko zela, konturatu orduko atzera autoan zela. Lasai egoteko, ez zela autorik ibiltzen kale horretan eta polizia ez zela inoiz pasatzen, ondo zegoela hortxe autoarekin geldituta. Hortxe, berak egin beharreko erreka-dua, jaso beharreko hori ("jaso" esan al zuen?) hortxe zela, berdez margoturiko bebarru horretantxe.

Bat-batean eta etenik gabe esan zion eta, bera gertatzen ari zenaz jabetu aurretik, autoa oraindik erabat gelditu ez zuelarik, neskak atea ireki zuen eta



"Neska haren irribarrea"

Rikardo Arregiren txanda... Narrazioa, poesia... Nola amaituko ote da egile desberdinen artean aleka osatu istorio hau? Nork erabakiko du amaiera? Nork eman-
go dio hasiera hurrengo istorioari, baldin eta badago? Erne egon aiez ale, bada.

jauzi batez autotik irten zen. Beti egiten zituen gauzak horrela neska horrek. Bat-batean, derrepentean. Hala ematen zuen behintzat.

Autoaren atea ixtean irribarrez begiratu zion, berehala zetorrela zioen irribarrez. Beti egiten zuen neska horrek horrela irribarre, irribarre lasaigarria, besterentzako irribarre. Berari behintzat hala iruditzen zitzaion.

Ez zitzaion kale hura batere gustatzen. Ezezaguna zitzaion erabat, begiak itxita hara eraman balute ez zuen sinetsiko bere hiriko kale bat zela. Edozein hiritako kanpokaldeko auzo horietako kale bat izan zitekeen. Ez, ez zen sekula handik pasa. Inoiz ez. Zertarako pasa behar zuen ba handik, ez zegoen ez dendarik, ez tabernarik. Bera han autoan neskaren zain zegoenetik ere ez zuen inor ikusi. Auto batzuk aparkatuta, betidanik han zeudela ematen zutenak. Bebarru batzuk, kristal zikinak eta aspaldi emandako pinturaren arrasto tristeren bat. Neska sartu zen hura zen nabarmenena, norbaitek berdez margotu zuelako, ez oso txukun, bai baina oso nabarmen. Zerbaitetatik ate hura, etxe hura, sarbide hura nabarmen zedin nahi izan balu bezala.

Ez, ez zitzaion kale hura gustatzen eta ez zitzaion gustatzen han egotea. Izan ere, zer egiten zuen han berak. Bazeraman ordu erdi. Ordu erdi gutxienez.

Eta neska berriro etorriko ez balitz?

Eta neskari zerbait gertatu balitzaio?

Axola al zitzaion neskari ezer gertatzea? Azken batean neska ere ez zuen kalea baino askoz gehiago ezagutzen.

Neska irribarretsuari gauza txarren bat gertatu balitzaio eta bera han ezer egin gabe balego, lasai autoan, irratia piztuta irratia entzun gabe.

Ez, ez zegoen lasai. Gainera, neskari zerbait egin zionak bera han zegoela jakin zezakeen eta bere bila jaitsi zitekeen berari ere gauza txarren bat egitera...

Halako batean, atea irekitzen da, gidariaren aldamenekoaren atea, tartean neskaren aurpegia agertzen da, irribarretsu. Bere atzean gizaseme bat hautematen da zutik, neskaren atzean zutik.

-Barkatu -esaten du neskak goxo. -Uste baino gehixeago entretenitu naiz han goian. Eskerrik asko itxoiteagatik. Begira, hau Victor da, nire lagun bat -neskaren atzeko gizona makurtu egiten da bera ere irribarrez-. Axola al zaizu gurekin etortzea hiribarnera. Autobusa hartzera zihoan oraintxe, baina esan diot guk eraman dezakegula. Ez zaizu axola, ez?

Ez zaio axola. Ala axola al zaio? Ez zekien hiribarnera zihoazetik. Dirudienez neskak erabakiko du arratsaren garabidea, neska irribarretsuak aginduko du bere bizitzaren ondorengo orduetan.

Neska bere ondoko lekuan jarri da eta Victor, neskaren laguna, atzean. Ez du oraindik hitzik esan Victor horrek autoa, azkenean, abiatu ahal izan duenean.

...jarraituko du...

...PATXI

ZUBIZARRETAREN

eskutik

© Lourdes Oñederra eta Geu aldizkaria

Udaberria

euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

Zure denda erotikoa

SEX

PITILIN
GORRI



GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIARTZUN

BAR
KLAKÉ

KUTXA, 2
TFNO.
143883



ARANBIZKARRA

ZURE

AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

K U L K I

"Herri kirolak eta herri
jolasak kultura dira"

www.kulki.org

OTSOKO de BINASPERI eta FORTUN ZURIA

Arabako Errioxan bizi zirenekoa

Kike Fdz. de Pinedo

Azaldu didatenez txoko berri honetako asmoa oso ezagunak ez diren historia eta istorioak zabaltzea eta ezagutaraztea da. Ideia ederra benetan! Izan ere, izan garena hobeto ezagutzea garena eta izango garena hobeto ulertzeko lagungarria eta beharrezkoa delakoan nago.

Gaurkoan 1336 eta 1350 "libro de fuegos de Navarra" eta "libro de monedaje" izenekoetan zergak biltzeko egindako biztanleen erroldan oinarrituko gara, orduko "Subserra edo Sonsierra de Navarra"ko euskal izenetan erreparatuz. Lurralde honek Ebro (IV. mendean KALAGORRI ondoan bizi izan zen Prudentzio poetak **VASCO HIBERUS** deitua) eta Toloño (edo modernagoa den Kantabria) mendikatearen arteko eremua hartzen zuen bere gain, gaur egun Errioxako komunitatean dauden Abalos, S. Vicente de la Sonsierra eta Peciña barne. Beraz, Lizarraldeko merindadeko nafarrak izan ziren, harik eta 1461ean Gaztelak menpean hartu zituen arte. Bastida eta Buradon errolda eta eskualde honetatik kanpo daude 1200 urteko erasoaldian Gaztelera pasa eta gero. Aipatutako bi erroldak oso lagungarriak zaizkigu garai hartako argazki moduko bat egiteko: Biasterialdean 984 "fuego" edo etxebizitza-familia zeuden, gehienak hauetatik, 62 "hidalgo" edo aitonen seme, 41na apaiza eta judutar eta 804 nekazari-merkatari; ez ziren garai goxoak izango hauetako asko "no pudient" edo pobreak baitziren, eta 1336koan Biasterin matxinaldi txiki bat egin zuten ordaindu beharreko zergaren aurka; egoerak okerrera

egin zuen gainera, 1348an izurrite beltza jasan eta gero.

Dena dela, datu hauek interesgarriak badira ere, bereziki errolda honetan agertzen diren euskal izenei erreparatuko diegu. Izan ere, gutxi dakigu zonalde honetako Erdi Aroko errealitate linguistikoaren inguruan, eta antroponimia (izenen azterketa), toponimia eta idatzizko iturri eta testuen azterketarekin batera, tresna interesgarria da hizkuntzen historia hobeto ezagutu ahal izateko.

Garai honetan izenak eta abizenak oraindik finkatu gabe zeuden eta hortaz, biztanleak izendatzeko modu bat baino gehiago erabili zituzten. Lau multzotan banatuko ditugu izenok.

1. Izena+ patronimikoa (aitaren izena + iz edo ez). Adib. **Pero XEMENIZ** (Biasteri -oraintsu Euskaltzaindiak ikerketa batean oinarrituta Guardia proposatu du Biasteri Binasperri (Viñaspre)rekin identifikatuz; seguraski hala izan daiteke, nik, halere, duen balio sentimentalagatik Biasteri erabili dut lan honetan).

2. Izena edo izen eta patronimikoa + nongoak diren. Adib. Biasterin ditugu **Ferrando de ARMENTARANA** (Biasteri ondoko herrixka desagertua), **Martín de ESQUIDI** (Ekora ondoko herrixka desagertua; XII. mendean Eschidia eta egun Eskide toponimoa, antza euskal etimologia duena: EZKI -alamo, chopo, tilo- +DI). **Sancho de MUGA** (Bastidako hegoaldean

Ebrorekin muga eginda herrixka bat omen zegoen; bertan XV. mendean frantziskotarrek San Andres de Muga izeneko monastegia sortu zuten; egun termino hori Valdemuga da), **Pedro de MURIART** (Muriarte / Murriarte ere ezaguna, Samaniego ondoko herrixka desagertua). Mota honetako izenei esker, jakin dezakegu garai hartako migrazio-mugimendu gehienak ondoko herrietatik Biasterira eman zirela eta beraz, ez dirudi agertzen zaizkigun euskal izenak kanpoko batzuen etorrerarekin azal daitezkeenik, besterik gabe.

3. Izenak. Hemen leku guztietan topa genitzakeen izenak ere agertzen dira, adib. Teresa, Martín, Johan, Pero...; baita bertako izen peto bat ere, **TOLONO de Ilciego** (herri berean, Johan de Tholoyno ere bai; Toloñon monastegia baino lehen gaztelu bat egon zen)... Haez gain, badira bi euskal izen gero zabalkunde handia izan zutenak penintsula osoan: **GARZIA** (gartzea, gaztea, garcia; bide batez esanda Gasteiz hiriari izena eman ziona, Gazte+iz), adib. Biasterin **GARCIA de Ravaniella**; eta **SEME-NO** (seme+no euskal txikigarria -"hijito"-) edo **SEMEN**, gero Jimeno eman zuena, adib.: Biasterin, la muger de **SEMENO**, **XEMENO el pastor**; Oionen **XEMENO**; Samaniegon **Johan SEMEN**; edo Bilarren **fijo de XEMENO**. Erdi Aroko beste euskal izen ezaguna, **Eneko**, azaltzen zaigu 1193an: Martín de **ENECONIS tenente de Lagoardia**, eta zerrenda honetan erdal eboluzioarekin **YENEGO d'Arburu**. Haez gain ditugu, **ANDRENET** (Biastr), **Pero MILIA**

(erdarazko Emiliaren euskal ordezkia) Lantziegon; eta beste hiru euskal hipokoristikoak dituztenak (-txo, -xe-, -tx-...; zentzu adierazkorra edo txikigarriarekin): Biasterin **PEDRU-CHON**, S.Vicenten **J. P. PACHON**, Mainueta edo Bañosen **fijo de PICHON**. Herri honetan ere, **MIQUELA**.

4. Goitzenak

Atal bat osatzen dute izenaren ondoren lanbidea zehazten dutenak, hauek erdaraz azaltzen zaizkigu, adb. Pero Lorent. carniceiro

Beste atalek ezugarri fisiko eta moralen berri ematen digute, batzuetan animalien izenak edo koloreak erabiliz. Hauek oso interesgarriak iruditzen zaizkigu. Izenak eta patronimikoetan moda eta bestelako joerak eragiten badute ere, goitzenetan argiago ikus daiteke kaleko hizkuntzen egoeraren isla. Izan ere, goitizena jartzerakoan denok ondo ulertzeko modukoa izan beharko zen zentzua izateko. Bada zerrenda honetan erdarazkoek gain badira euskal goitzen dexente, euskararen agerpena erakusten digutenak. Hortik aurrera ez gara ausartzen zehaztapen gehiegi egitera, baina badirudi euskara bizirik zegoela Biasteriko kaleetan; zein intentsitatearekin?, egoera elebidunean?... Sarrera hau eginda eta gehiago luzatu gabe goazen adibideak aipatzera:

Kolore edo animaliekin osatutako euskal izenak ohikoak izan ziren Erdi Aroan:

- **Fortun ÇURIA** (Zuria), **Johan HOVEÇURI** edo **fijo de PANÇURIZA** (Biastr.) -badirudi hibridoa dela, gaztelanizako pan+zuriza-. **Fijo de GORRIA**, **Johan BALÇO** eta **J. BELÇA** (Beltza) (S.V.), **F. M. BALÇA** (Peciña).

- **NAVAR(RA)** balio etniko edo kolorea izan daiteke (erdal baliokidea, Pardo). **Johan NAHARRO** eta **Martín NAVARRO** (Biastr.); **M. NAVARRO** (Muriarte); **J. NAVARRAS** (Bilar); **J. NAVARRA** (Binasperi).

-Animaliekin osatuak: Gehien

agertzen dena **OTSOA** da, erdal baliokideak Lupo eta Lobo dira. **Martín OCHOA** (Biastr.), **OCHOA** eta **OCHOA ferrero** (Kripan, eta beste bi herritan ere bai). Oso deigarria da 1183an agiri batean agertzen diren **OCHOCO de Binaspri**, **Lop ARCEIZ de Ichora** eta **Pero ARCEIZ de Binaspre et de Ischidia** (hartza+iz patronimikoa); **J. eta S. MOCHARRO** (Kripan), -moxarra=marmota-, **Pere Y. eta Garcia MOCHARRO** (Biastr.) -bukaerako "o" gizonetzkoen izenak markatzeko-, **Johan de HUXUA** (S.V.) -uso-, eta **USSUA**, Biasteriko judutarra.

Ezaugarri fisikoak:

"egia bada oso goiz hasiko zela zelta, latina eta hizkuntza erromantzeen agerpena inguru honetan, euskarari ere, ez modu homogeenan, leku batzuetan besteetan baino gehiago, bere lekua edo agerpena aitortu behar zaio"

J. EZQUERRAL (Sam.), eta **Judas EZQUERRA**, Biasteriko prestamista ezaguna 1389n erahila. **Fijo de CHAPARRO** (Bi.) -txaparra=haritz txikia-, eta **J. P. CHAPARRO** (Leza). **Johan GACHA** (S.V.), **S. M. GACHAN** (Peciña) -gacha=oso handia-. **Pero BURUNDA** (buru+nda atzizki adierazgarria) eta bere erdal baliokidea, **Martín el testudo**, biak Bilarren; **M. el BURUANO** (Sam.); **Johana eta Priscina BURUTANDAS** eta **P. S. BURUVAÇA** (Bi.).

Nortasun-ezaugarriak:

Elvira VICHIA (Bi.) -bitxia-; **J. de YLUNA** (S.V.) -gogoratu erromatar garaiko Iruña-Veleiako Illuna-; **La clavera de GOGORRO** (Bi.); **Pero XONA** (Bi.) -"x" balio adierazkorra + "ona" / erdal baliokidea: **J. Bueno** (Bilar); **M. Y. GARRAÇA** (eta beste bi, Biasterin, eta bat Ziekon) -garratza-; **D. M. ÇURRA**, **S. ÇURRA**

(Peciña) eta **J. M. ÇURRA** (Zieko) -zuhurra?; **fijo de Pero GARIDO**, eta herri berean, erdal itzulpena dirudiena **fijo de Pero Trigo** (S.V.). Badira beste batzuk hain garbiak ez direnak: **SISON** (gizon ote?), **BELENDO** (bele+ndo), **GARIN** (*Galindo*-ren euskal bilakaera fonetiko), **MOCHAT?**, **CHARRIELLO?**,...

Esan ere egin behar da, eskualde honetatik kanpo ere antzeko goitizena topa ditzakegula. Honela, Gasteiz ondoko herrietan, XIV. mendearen erdialdean: **P. VALÇA de Mendoça**, **Juan ZURI de Monasterioguren**, **OCHOA de Cerio**, **Martin de Yurre GORRIA**, **MILIA de Helorriaga** edo **GUIÇON de Arcaya** bezalakoak bizi ziren.

Bastidako errola-daturik ez dugun arren, ondoko San Vicente herriaren antzeko izenak izango zituela suposa dezakegu. Gainera, X-XI. mendeetan, Biasteri ondoan, **Herramelluri** (Herramel+uri) eta **Mutilluri** (Mutil+uri), **HERRAMEL** eta **MUTIL** izeneko bi jaunek sortutako uriak (villa, ciudad) bide dira. XII.lean, bestalde, agertzen zaizkigu Toloño magalean zegoen San Julian de Carbonera izeneko monastegiko jabeen artean: **Sancho Alvaro de GARISURI** (gari+zuri) eta **doña ANDREGOTO** (Erdi Aroko euskal izena). 1075 urtekoak dira inguruko **Miliharan**, **Artasona**, edo **cova Assuri** bezalako toponimoak (Bastidaldean XVII-XVIII. mendeetan 4 toponimoe-tatik 3 euskal terminoak dira eta gaur egun ere dexente gorde dira).

Honekin guztiarekin, eta bukatze aldera zera esango nuke, egia bada oso goiz hasiko zela zelta, latina eta hizkuntza erromantzeen agerpena inguru honetan, euskarari ere, ez modu homogeenan, leku batzuetan besteetan baino gehiago, bere lekua edo agerpena aitortu behar zaiola, gutxienez XIV-XV. mendera arte. Ea XXI. mendean, eskualde honetako karriek, berriz ere, euskara entzuten duten.


"halako bi edo ezer ez" & kaleko eskulturen museoa

francisco ruiz de infante, isla mundialeko

josune verez de mendizabal

argazkia: edorta sanz

artista gasteiztarra



DOBLE O NADA / HALAKO BI EDO EZER EZ
javier tudela francisco ruiz de infante

Gasteizen jaioa izan arren Francisco Ruiz de Infante Europako hiri handien (Paris eta Alemania, batez ere) eta New Yorken artean bizi izan da artista izatea erabaki zuenetik. Bide horretatik bere lanek mundu mailan islada handia eskuratu dute, eta egun arte-munduan leku handia biltzen du Ruiz de Infante abizen arabarrak. Gasteiza noizbehin badator ere, atsedean tokia besterik ez da hau, baina ez akaso bolada honetan; izan ere, azken hilabeteotan inoiz baino gehiago entzun eta ikusi ahal izan dugu Franciscoren irudia. Hiriburu arabarra bere ondarearekin liluratu da; aretoetan nahiz kalean -etorkizuneko egitasmo batean- ikusi ahal izan dugu bere sormen-lana; bere jaioterrian gainera.

Amarica, Trayecto edo Artiumeko aretoetan izan ditu erakusgai bere forma hartutako ideia propioak, hauek guztiak arte iragankorrak -bere lana des-

kribatzen duen ezaugarri nagusia- harremandu dituela. Erakusketek dagokienez, azken bi hilabeteotan Javier Tudelarekin batera eginiko "Dena edo ezer ez" instalakuntza izan da bisitatuena Gasteizen dituen erakusgaien artean. Montehermoso Jauregiko ur-biltegiaren kokatu erakusketa berezi honek (ur-biltegia artista ezberdinen ikuspegitik jantzi dadin udal-ekimenaren barnean), artea eta arkitektura bateratze ildotik, gela desberdinen labirinto esanguratsu bati eman zion forma: "pisu handiko arkitekturen testuinguruarekin lanak moldatzen eskarmentu handia daukat, eta ideia planteatu zidatenean horrelakorik etxean egiteak erronka handia suposatu zuen niretzat". Elkarren arteko lan honetan bi arabar hauek ur-biltegiari aurpegia eraldatu diote. Euren arteko hartu-emana Bilboko Arte Ederretako fakultatean hasi bazen ere, Paris hiriburuak era-

man zituen bi artista hauek elkar ulertzea eta beren harremana sakontzea. Erakusketa, hitzaldiak eta artistek euren eginiko bisita gidatuz ere jantzi da; bi handien ikuspegia gertuagotik ezagutzeko hurbileko aukera.

Asko dira Franciscok munduan zehar gauzatzeko dituen egitasmoak, eta horien artean, oihartzun handiena lortu duen Picasso Becak zerikusi handia dauka: "eman didaten 18.000 euro inguruko bekarekin bideo-luzemetraje esperimentalak egingo dut". Estrasburgo eta Erroman ere beste erronka batzuei ekingo die.

Halarik ere, ez da hemen geratzen Ruiz de Infante Gasteiz hirirako egingo duen lan guztia; egitasmoen artean, Gasteizko Prado parkearen bir-moldaketan parte hartuko du gazteak.

"Kaleko eskulturen museoa" deritzon udal-egitasmoa abiapuntutzat hartuta, iragan hilabeteetan Arte Publikoaren inguruko lehen jardunaldiak antolatu ziren Montehermoso Kulturunean. Bertan Paula Llul, Rosa Olivares, Fernando Bajo, Esther Ferrer, Antonio Rivera eta Dani Castillejo adituak eta artistak bildu ziren, Estatu mailan kaleetan egingo den arteaz hitz egiteko; Gasteizko kaleko eskulturen inguruan, berriz, Ruiz de Infante izan zen mintzalagun, eta datoren urtean Prado parkean gauzatuko diren eskulturen artean berak aurkeztutakoaren inguruan berba egin zuen.

"Prado parkeko egitasmoarekin orain arte egin ez dudan zerbait egitera bultzatu naute"

francisco ruiz de infante



Dagoeneko bi urte dira Udalak adituen batzordea eratu zuela "Kaleko eskulturen museoa" egitasmoa aurrera eramateko. Proiektu honen abiapuntutzat Prado parkea hautatuz, batzordearen lana Gasteizko leku esanguratsu honetan

kokatuko ziren eskuhartze eskultorikoak erabakitzean zetzan; azkenik, hauek dira aukeratu artistak eta artelanak: Sergi Aguilarrek "El paso por las nubes" izeneko "collage" antzekoa egingo du, lurralde ezberdinetan geografia ardatzak bil-tzen dituen; Claudia Wissmann-ek "Caja de luz" lana gauzatuko du, metro kubikoaz eginiko argizko kutzak, alegia; Susana Solanok "La linterna" izenekoarekin, parkerako sarbide berri bat ideatu du; lurrean joango den zenbakien arteko zoruak "Números primos" du izena eta Esther Ferrer da sortzailea; Francisco Ruiz de Infante, berriz, egitasmoan esku hartuko duen arabar bakarrak, egun dagoen umeentzako jokogunea birmoldatuko du. Hona hemen GEU aldizkariari azal-dutakoa:

-Zein da kaleko artearen inguruan egiten

duzun burutapena?

-Proiektu nahikoak ditut bide honetatik abiatuta, nahiz eta oraindik gauzatu gabekoak izan; horregatik, proposatu zidaten ekimen berri honek orain artean egin ez dudan zerbait egitera bultzatuko nau. Izan ere, nik iragankorra den artearekin lan egiten dut eta ez iraunkorra denarekin; egitasmo honetan, hortaz, erabilgarritasuna izan dut irizpide nagusi, hau da, artean eman daitezkeen memoria historikoa eta balio estetikoaren ezugarriak alde batera utzita.

-Hautatu proiektuen artean zurea da bitxia, umeekin lan egingo baituzu...

-Bai..., umeen iritzia garrantzitsua iruditu zait, azken finean jolastokia beraiek erabiliko dute-eta. Bost eta zortzi urte bitarteko haurrekin joango naiz parkera eta euren aburuak izango ditut kontuan jolastokia moldatzeko orduan. Nik eraldaketa gutxi egingo ditut; egiaz, hasiera batean hainbat berrikuntza otu zitzaizkidan, baina 'jolastokietarako segurtasun araudiaren txostenak' horiek denak debekatzen zituen. Hartara, momentuz maketa zuri bat besterik ez daukat buruan; niri lana denboraz hartzea gustatzen zait, baita sorkuntza prozesuan suertatzen diren aldaketak baloratzea ere. Jolastokia zuriz margotu eta umeen presentziak jantziko du kolorez

parkearen zati hau.

-Zein da biztanleriak kaleko artearen inguruan duen benetako interesa?

-Arduratzen nauen gaia da hau... Museo batera doan jendeak artea ikustea bilatzen duen heinean, kalean ezarritako artea nahitanahiez ikustera behartzen zaituzte, eta beti saiatu naiz sentsazio hori ekiditzen...

-...Oraingo honetan ezin, beraz...

-Bai, hala da baina nolabait parkean arituko garen artista guztiak bat gatzat parkearen itxura mantentzea eta ez aldrebes jartzearekin...; nahiz eta artelane-k lekua egunerokotasunean ezarriko duten, paisajea eraldatu gabe izango da. Ideia bat irudikatu nahi dugu eta ez erakuslehioa sortu.


-"Ecosistemas" artelanarekin Arte Plastikoko Picasso Beka eskuratu berri duzu. Zer dakarkio sari honek zure ibilbideari?

-Ez nekien hain garrantzitsua izango zenik, komunikabideetan zabalkuntza handia izan du eta oraindik apurtxo bat harrituta nago... Egia esan, lagun batzuek animatu ninduten apuntatzera eta horrela egin nuen... Oraindik bi urte ditut egitasmoa garatzeko, luzemetraje esperimental izango da, hori besterik ezin dezaket aurreratu.

"Ideia bat irudikatu nahi dugu eta ez erakuslehioa sortu"

Naturaren isladak

Herriko egurrezko pertsianen zirrikituetan negua pasatzeko babesa aurkitu dute aurten jaiotako landa-tximitxek (*Doly coris baccarum*). Urtaroa gaindituz gero udaberrirako sexu heldutasuna izango dute.



UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

**EYSKAL LABELA
LASAGABASTER**
harategia eta urdaitegia
Gasteizko
haragitegirik zaharrena
Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Confecciones
Pinedo
JANTZIAK
San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

vitrales
**BEIRATE
ESTUDIOA**
Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ
**MIKEL
DELIKA**



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

txan magoa
magiaren munduan txan magoa
artxila murtxila!
36€
bidalketa gastuak barne
KUTXA MAGIKOA
Sar ezazu TXAN barruan eta desagertu egingo da!
BIDEOA
TXANek magia egiten irakatsiko duzu!
Ikas itzazu magoen trikimailu guztiak!
**LOR EZAZU
TXAN MAGOAREN
MAGIA
KITA!**
**TXANen
KAMIXETA**
Neurriak:
4-6-8-10 urte
**MAKILATXO
MAGIKOA**
Magia egiteko
ezinbestekoa!
**DEITU
ORAIN! 902 45 12 12**
TRUK
902 45 12 12
GASTEIZ • BIZKAIA • BERRIA

Bacalao Giraldo


- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

**XIXILU
JATETXEA**
AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

HEGOALDE
Euskaltegia
Matrikula zaituz !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

GREZIA

testua: geu aldizkaria

(informazio iturria: ivan santamaria / argazkiak: ivan santamaria)

Bidaiak: Xabier Errasti, Jerras, bidaiaria-
ren kolaborazioa, batetik; eta bestetik,
Geu-k bildu informazioa; tartekatuz.

bidaiak



- NONDIK NORA: Gasteiz-Grezia
- NOLA JOAN: Hegazkinez: Sondika-Madril-Atenas. Trenez: Italiara eta hortik, ferryz Greziara.
- ZENBAT DENBORA: 2 aste.
- AURRETIK PRESTATU BEHARREKOA: Pasaportea izatearekin nahikoa da. Europako Batasuneko kideek ez dute gehiagorik behar hara joateko.
- MOTXILAN ZER ERAMAN: Eguzki krema (eguzkiak erruz jotzen du), arropa arina (maiatzetik urrira bitartean bero egiten du), zapata erosoak, mendiko botak, argazki makina, Greziako gida bat, mapak eta lozakua (lo egiteko lekua egon badago, baina batzuetan egoera...).
- TXANPONA: Euroa.
- HIZKUNTZA: Grekera.
- HELBIDE-KONTAKTU INTERESGARRIAK:
 - * Nazioarteko albergea: Victor Hugo, 16. Atenas.
 - * Emakumeentzako albergea: Amerikis, 11. Atenas.
 - * Kanpinak: Panhellenic Camping Unioa. 102 Solons Str. Atenas.
- TOKIAREN DESKRIBAPENA: Herri oso lehorra da. Hegazkinetik atera bezain pronto, harri gorrixkako parajea ikusten da. Aipatzekoa da irletako herri eta elizen edertasuna.
- PLAN EREDU EGOKIA: Gutxienez bi aste-ko bidaia egitea gomendatzen dugu.
- 3 egun Atenasen
- Atenaseko Pireotik ferry-a hartu eta Kretara.
- Kretan 2-3 egun pasa (egun gehiago igaro-

- tzea gomendatzen dugu, merezi du eta).
- Beste bi egun Santorinen.
- Ferry-a hartu eta Natxos-era joan. Bertan beste bi egun pasa.
- Natxosetik Atenasera bueltatu. Bertan Nanplia ikusi (Greziako antzinako hiriburu). Iparraldera igo eta Meteorara bisitatu.
- Hortik hegazkina hartu eta etxera.
- AHOLKUAK, JAKIN BEHARREKOA:
 - Nahiz eta grekera ulertu ez, lasai egon, jendeak ingelesa nahiko ongi hitz egiten baitu.
 - Kotxea alokatzekotan, Grezian gaizki xamar gidatzen dutela kontuan hartu. Hiria trafiko aldetik nahikoa kaotikoa da, beraz, kontuz ibili.
 - Argazkiak ateratzen badituzue bertan errebelatu, oso merkea baita.
 - DERRIGORREZ EZAGUTU BEHARREKOA:
 - Atenasen: Akropolis (azpiko gunea oso ikusgarria da), Parlamentuaren aurreko goardia aldaketa (Evezona), Museoak gus-tuko badituzu oso aproposa.
 - Merkatuak: Monastiraki auzokoa bereziki polita da.
 - Irletako herrixkak eta hondartzak ikusgarriak dira.
 - BESTELAKOAK: Gastronomía aldetik haue-txek gomendatzen ditugu: Kafe grekoa, Moussaka (berenjenarekin egindako haragi pastela) eta Retsina (ardo txuria da, pitxarretan zerbitzatzen dute).

fitxa

HERRIAREN DATUAK (estilo liburua. euskaldunon egunkaria): Grezia edo Errepublika Helenikoa. Europako Hego Ekialdeko estatua, Balkandar penintsulako hegoaldean kokatuta. 131.944 Km². Atenas da bere hiriburua (atenastar). Biztanleak: Greziarrak, grekoak (10.3 milioi). Hizkuntzak: grekera (ofiziala, 9,8 milioi), mazedoniera (180.000), albaniera (140.000), turkiera (128.000), bulgariera, eta beste gutxiengo batzuk. Erlijioak: % 97,6 greziar ortodoxo; % 1,5 musulman; % 0,9 beste).

Zure begiak, gure kontu



PROFESIONALITASUNA ETA ZERBITZUA

Adituri onenek eta azken-azkenengo teknologiak bakarrik berma dezakete ongi egindako lana. Zerbitzu osoa, norberaren neurrira, hurbila eta saiaria.


Horixe duzu gure konpromisoa.



MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

ARTEPAN



Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta kotoizko ebunak eskuz margotuak"

- ZAPIAK -

Arantza Arregui
Ramiro Maeztu, 1 - Tfnoa: 945 13 33 59

adaka
madinabeitia



**Floridako
altxorra !
35**

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 • GASTEIZ

34



ERROTA
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!

Jatetxea - Taberna

"EL CLARETE"

Unai eta Patsi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefona: 945 26 38 74

Garagardotegia

Ostiral arratsaldean,
larunbeteetan eta
igandeetan
IREKITA

Gerentzia
berria

La Blanca

* Oilasko
erreak

* Kazolatxoak

**UKONDO
ERREA
DAGO**

Tfnoa. 945 27 90 46
Herrandarren kalea, 82
Gasteiz



Hitza, bihotzaren giltza:

**GORA EUSKADI
ASKATUTA!**

NONBAIT

Kamisetak: Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...

Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak

Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7

Tel./faxe: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

GASTEIZ

ZURE
EUSKAL
DENDAK

Gamarra ostalaritza eskola

OTARRAINSKAK TEMPURAN, PORRU ETA ONTTO ZOPATAN



Prestaketa

Tempurako: Disolbatu legamia ur-hotzetan, nahastu, zuringoa izan ezik, gainontzeko osagai guztiekin, eta harrotzen utzi leku epel batean. Azken orduan zuringo harrotuak gehitu, eta kontu handiarekin nahastu.

Zoparako: Gurinetan gorritu onttoak, gehitu porrua eta arrain saldarekin egosten jarri. Iragazi, gehitu jereza eta esnegaina, eta gutxitzen utzi. Ondu gatz eta piper hautsaz.

Isatsa kendu gabe otarrainskak zuritu. Buru ederrenak erdi-tik zatitu eta prentsatu.

Otarrainskak (2 razioko), eta otarrainska eta txipiroi-buruak, tempuratik igaro ondoren olio berotan frijitu.

Burduntzalitxo bat zopa isuri platerean, ondoren jarri otarrainskak, beren eta txipiroi-buruak zutik, eta lagundu porru frijitu, ontto, olio berde haritxo bat eta bi kipulin puntatxorekin.

OSAGIAK

- Otarrainskak
- Txipiroi-buru garbiak
- Tempurako**
- Irina 100gr.
- Ur oso hotza, 2'5 dl.
- Gatza, 10 gr.
- Arrautza zuringo harrotuak, 4
- Legamia prentsatu, 15gr.
- Hornigaia
- Oliotan egosi eta ondoren salte-atutako onttoak
- Porru frijitua
- Oliba olio berdea (perxilarekin)
- Tipulina
- Zoparako**
- Porru gazte eta freskoa
- Oliotan egositako onttoak
- Arrain salda
- Esnegaina
- Gurina
- Jerez ardoa
- Gatza eta piper-hautsa


Hitz Gezidunak

	Arnas organoa	Zibak	Ez orto-doko	Musika nota	Miatuta
	Mandioa	Hobeto	... eginda, mozkortuta	Galioa	
	Automata				Röntgen
	Baneuzka				Karta igarle
Zaborrak	Aurpegiko ile multzo			Tantaloa	
Portuko langileak	* Deitura			Labore hautsa	
Edari al-koholduna		Soroa			
Soldata		Lokarria			
		Eskuaren erdian	Hari, dut		
		Gaixo	Potasioa		
* Izena			Afera		
Poloniako dantza			Lehena eta azkena		
			Xakearen hasieran	Kontso-nantea	
			Kontso-nantea	50	
Errep., gorotza	Joan den urteko			Musika nota	

Denbora-pasa:
Luma, denbora-pasa eta hitz-jokoen hilabetekariaren eskutik, Arabara egokitua.

*** Irudia:**
XIX. mendeko euskararen suspertzaile gasteiztarra (1817 - 1878), Gasteizko kale bati izena eman diona.

Soluzioa:
38. orrialdean





10 urte
euskara
euskal kultura
han-hemenka
begirunea
prestigioa
duintasuna

egitaraua. programa:

ABENDUAK 11 de diciembre, asteakoa:
bitzale-lanera / conferencia-taller
"Iraketa berriak hizuntz berriak erabiltzen" (18:30)
"Euskarazko hizuntz berriak" (19:00)
"Euskarazko hizuntz berriak" (19:30)
"Euskarazko hizuntz berriak" (20:00)

ABENDUAK 12 de diciembre, ostirala:
kontzertua, concierto
"Hizuntz berriak" (19:00)
"Euskarazko hizuntz berriak" (19:30)
"Euskarazko hizuntz berriak" (20:00)

ABENDUAK 13 de diciembre, ostirala:
Zuzenbidea, debate-poesia-waves, diorama
"Euskarazko hizuntz berriak" (19:00)
"Euskarazko hizuntz berriak" (19:30)
"Euskarazko hizuntz berriak" (20:00)

ABENDUAK 14 enero, asteartea:
Euskarazko hizuntz berriak, debate-poesia-waves, diorama
"Euskarazko hizuntz berriak" (19:00)
"Euskarazko hizuntz berriak" (19:30)
"Euskarazko hizuntz berriak" (20:00)

mintzalagun egitasmoa

Euskaraz mintzatzeko, jende berria ezagutzeko, ondo pasatzeko... Astindu lotsa eta deitu Elkartera (945222153-Josune). Zenbat eta lagun gehiago, orduan eta talde desberdin gehiago!

lan poltsa

GEU elkartearen monitore euskaldunen lan-poltsa osatzen ari gara ikasturte honetan proposamen berrietan lan egin ahal izateko.

Bidali curriculum txiki bat postaz edo e-postaz (geuelkarte@grn.es)
Arduraduna: Josune

**Erne geu elkarteak,
geu aldizkariaren 10.
urteurreneko egitarauari!**
(ikus. kontrazala)

geurekin mendira
zatoz geurekin mendira!

abenduarien 15ean

ARMIKELO (888)

Informazioa:

945200973 (Joseba)

Irteera tokia:

Lovaina plazan,
goizeko 9.00etan

(Kotxea baldin baduzu, eraman)

Hilero Geu aldizkaria-ren mahaia dugu erdi aroko hiriguneko azokan, arkupeetan, gasteiztarrei proiektua ezagutarazteko. Hurrengo zita: hilaren 7an.

Argazkian, Oskar Ugarte eta Ania Ibisate azaroko azokan.



ekimenak gogoan

'Kultur Errota' martxan ekaina bitartera: azaroan Igor Arzuaga etorri zen gurera. Triki eta beste musikatresnen jotzaile, Exkixu taldeko partaide izandakoa eta Mikel Urdangarinek ere ibilitakoa. 'Argi izpi bat' bere lehen diskoa aurkeztu zigan azaroaren 26an. Adi datozen kultur errotei!

GAUEKOAK

Gauekoak programan Geu elkarteak azaroan burutu 'Euskaraz bustiz' asteburua interesgarri suertatuz, ekitaldi guztiek partehartze nahiko ona izan zuten. Koldo Amestoy, Mikel Telleriak, Ion Maiak, Ander Lipusek, Labritek... kolorez jantzi zuten Gasteizko gaua. Argazkian, Labrit



geu azoka

Salmentak, alokairuak:

-IKA euskaltegiko EGA mailako materiala salgai. Erabili gabea. Guztira 40 euro. 656761588

**Umeak, etxekolanak,
eskola partikularrak, lana**

kangeuroak

Umeak zaintzeko Kangeuroen zerrenda osatzen ari gara. Zerrenda honetan agertu nahiez gero eman zure izena eta telefonoa eta zehaztu zure ordutegia (egun osoz, goizez, arratsaldez, gauez, asteburuak): 945222153 / geugaste@grn.es (horrela norbaitek KanGeuro baten beharra badu hemen du aukera zurekin zuzenean kontaktuan jartzeko)

* Ordutegi guztiak

Estitxu. 651706739

Maria. 656745969

Miryam. 656761588

* Arratsaldez

Patxi. 652743205

* Gauez

Nerea. 658733934


* Asteburuak

Nagore. 945281124

Marta. 606415235

literatura

Elkarlanean argitaletxearen eskutik
Ekialdeko mamua (Literatura 226)
Jon Arretxe
(Azaroan kalean)



2001eko irailaren 11ren ondoren joan zen Jon Arretxe Ekialde Hurbilera, ez gerra giroaren edo tentsio berezien bila, ezpada aurretik pentsatuta zeukalako hara joatea. Istanbultik abiatu, Turkia osoa zeharkatu, Iranen sartu, eta Teheran hiribururaino, bizikleta gainean beti.

Zer aurkituko duen ez dakiela doa Arretxe, hedabideetako propagandak apur bat asaldaturik, baina gauzak bere begiz ikusteko irrikaz, bere bidaietan ohi duen bezala. Zer topatuko du? Paisaia desberdinak: berde eta heze batzuk, Euskal Herri minaretadun baten antzera, gorri eta latz beste batzuk; baina batez ere jendea: jende jator eta bihotz-zabala, hizkuntza eta kultura diferenteen gainetik komunikatze gogo daukana. Emakumeen egoerak ere txoko berezia hartuko du liburuan, nahiz eta egileak modu handirik izan ez hango andreekin hitz egiteko.

'Tubabu' eta 'Tuparen seme-alabak' gogoangarrien ondotik, beste bidai liburu bat, Euskal Herrira ekarri mundu zabalaren berri.

geuren ekimenez:

Gasteizko irakurle Kluba

3. eta 4. saioak

Honako hauek dituzue urtarilaren hasieran eta bukaeran eztabaidagai izango diren liburuak. Beraz, heldu horiei eta ez galdu zita!

* Aingeru Epaltza, Rock'n'roll. Elkar, 2000

Urtarrilaren 8, asteazkena

* Kirmen Uribe, Bitartean heldu eskutik. Susa, 2001

Urtarrilaren 29, asteazkena

DERRIGORREZKO: liburua irakurrita ekartzea (eta hitz egiteko gogo, noski).

Ordua eta tokia: 20.00etan Hikaateneo-n (Pintore kalea, 13)

Literatur lehiaketa

Azaroko galdera:

Estatu mailako zer literatur sari eman zitzaion euskal idazle bati urrian?, zein idazleri, zein lani?, aurkeztu al da lan hau aldizkarian?

Erantzuna:

Espainiako Narratiba Saria; Unai Elorriaga; Sprako tranbia (bere 1. Eleberria); bai, atera da aldizkarian

Irabazlea:

Begoña León Petite.
ZORIONAK!

Abenduko galdera:

'Idazleen gurgila. Istorio kateatuak', aldizkariko atal berria dugu. Zertan datza eta nor da hurrengoa?

geugaste@grn.es

Sauré argitaletxea

Leonardo, jakintsu handia
turk & de groot
(Komikia)

Leonardo Da Vinci gizon ameslaria da. Publiko handiak ondo ezagutzen du haren asmakerien zerrenda luzea; oraingoan, ordea, Turk eta de Groot autoreek beste zenbait asmakuntza bitxi erantsiko diote zerrenda horri: animaliak hizketan jartzeko edabea, diskoaren ideia eta klonazioa. Baina asmakari guztietan onena komiki honetako pertsonajeek -euren gogoz kontra, batzuetan- erakusten duten umorea da.



musika

'Kokein' (Kokein taldea, sortu berria)
gaztelupeko hotsak
Rock berria, soinu berriak,
aire berriak

Gasteizen, Tapiocan, hilaren 13an,
ostirala, 22.30etan, Geu-ren 10.
Urteurrenaren egitarauaren barnean

Eibarko harrobiak emandako azken emaitza, iturri berri eta klasikoetatik edaten duena: Pearl Jam, Incubus... Zalao, Jatsu, Txitxes eta Haritz dira partaideak. Banda gaztea, nahiz eta kideak beste hainbat taldetan aritutakoak izan. Intentsitatearen sokatik tira egiten duten arren soinu eta giro lasaiek ere badute oinarri finkorik. Zaloaren ahots partikularrak egungo rock-musikarik garaikideena trasmiti-tzen du. PiLT taldeko partaideen laguntzaz grabatutako CDa erakusten ari dira eszenatokietan. Diskoak taldearen bideoklipa dakar.



denbora-pasaren soluzioa

(35. orr.)

	✱	B	✱	Z	✱	H	✱	S	✱
		B	I	H	I	T	E	G	I
		R	O	B	O	T	A	✱	R
✱	Z	✱	B	I	B	O	T	E	✱
Z	A	M	A	K	E	T	A	R	I
✱	R	O	N	A	✱	A	L	O	R
S	A	R	I	✱	S	K	✱	D	I
✱	M	A	T	E	O	✱	K	O	N
M	A	Z	U	R	K	A	✱	X	✱
✱	K	A	✱	I	A	Z	K	O	✱

*Mateo Moraza

hobeto irakurriko duzu **etorkizuna**

Zenbat eta zerga gehiago aurreztu gaur



aurrezkia

zergak arintzea

aurreikuspena

Vital Pensión

Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea

Pertsonalizatua

Caja Vital  **Vital Kutxa**

www.cajavital.es

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

10

10 urte
euskara
euskal kultura
han-hemenka
begirunea
prestigioa
duintasuna

egitaraua:

ABENDUAK 11, asteazkena:

hitzaldi-talerra

'Urrats berriak hizkuntz berreskurapen lanetan'

SEI elkarteko (euskal soziolinguistika institutua) kide pablo
suberbiola-ren eskutik (Gasteizi egokitua)

20.00etan, **jardin de falerina** kafetegian

(montehermoso kulturunean)

ABENDUAK 13, ostirala:

kontzertua. **KOKEIN**

rock berria, soinu berriak estreinako diskoaren aurkezpena

22.30etan, **TAPIOCAN**

(Sarrera: 4 €)



ABENDUAK 17, asteartea:

ZIRRARRAK. bidaia-koesia. diaporama

jerras (xabier errasti) bidaia-aren eskutik

20.30etan, **Parral tabernan**

URTARRILAK 14, asteartea:

eneko etxebarrieta

bidaia-aren filmina-emanaldia

Gasteiztik munduari buelta bizikletaz (4 urteko bizipenak)

20.30etan, **Parral tabernan**